

ANTONIO ZAVALA, S.I.

ATANO TA ESTRADA

BERTSOLARIAK

ATANO TA ESTRADA
BERTSOLARIAK

AUSPOA LIBURUTEGIA

94

COLECCION AUSPOA

**Administración: Plaza de Santa María, 2 - Tolosa
(Guipúzcoa-España) Tel. 661612**

**Dirección: Rvdo. P. Antonio Zavala, S.J. Colegio
de S. Ignacio. Ategorrieta. — San Sebastián.**

Ordaindu bearrak:

**Urte betekoa: 380 pezeta Atzerrian: 500 pezeta
Ongilleak: 600 " Ale bakarra: 50 "**

ANTONIO ZAVALA, S.I.

ATANO TA ESTRADA
BERTSOLARIAK

AUSPOA LIBURUTEGIA
1970

Azalean: *Atano anaiak, pelotariak, eta aita, bertsolaria.*

Zutik: *Luziano, Eujenio, Mariano, Marzelino.*

Exerita: *Juan Mari, aita, Balentin.*

© **Auspoa Liburutegia**
Tolosa (Gulpuzcoa)

Depósito Leg. S. S. 368/70
IZARRA - Peña y Goñi, 13
San Sebastián - Marzo 1970

ARKIBIDEA

ATANO BERTSOLARIAK	9
JUAN MARIA ATANO	
Aotik aora	17
Semea txapeldun	28
Bertso berriak, Azkoiti'ko arto-jokuaren gañian jarriak	36
JOSE MARIA ATANO	
"Gure erriko festak"	49
(1884) Azkoitiarrak Itziar'era egindako erro-meria	51
(1886) Bertso berriak	58
Bertso berriak, Lezo'ko Peregrinaziyoaren gañian jarriak	65
(1907) Bertso berriak, Bandera gorriari Etxaube'k jarriyak	71
"Andregaiia badaukat"	78
ESTRADA BERTSOLARIA	
Nere aita zana	85
(1887) Bertso berriak, Estradak Burgos'en jarriak, kintuen bizitzari	92
Kasero'ko txerria	103
(1892) Bertso berriak, Estradak jarriak, (Pasio Santua)	106
(1898) Organo berriari	118

(1908) Azkoiti'ko Mariaren Alabai, Itziarrera egin zuten erromeri zoragarriaren oroipenian	122
(1908) Zumarraga'ko Karliste festaren oroipenian	133
Ama Birjiña Urrategi'koari	141
Madariaga'ko Misioak	152
"Italia'tik gatoz"	156
Euskalerrari	158
"Moruak ein dituzten"	163

ATANO BERTSOLARIAK

ATANO BERTSOLARIAK

Ezta euskaldunik izango, Atano izena entzun ez duanik; geien-geienai, ordea, itz orrek pelotariena bakarrik oroitaraziko die.

Bañan pelotari-gizaldiaz aurretik, bertsolari-gizaldi bat izan zan famili orretan. Atano pelotarien aita ta osaba bertsolari baitziran. Oien bertsoak argitaratu nai ditugu gaur emen.

Aita, Juan Mari zeritzan, eta osaba, Jose Mari. Deiturak, Joaristi ta Irureta zizuten.

Atano baserrian jaioak ziran. Baserri ori Azkoiti'ko partean dago, kaletik ordu-laurden batera, kanposantuaren atzean, Izarraitz mendiaren azpian.

Eliz-liburuetan arkitu degunez, bederatziz senide izan ziran: Ana Josefa, 1851/I/18'an jaioa; Jose Manuel, 1852/X/3'an jaioa; Ramona, 1855/XI/21'an; Jose Ma-

ria, 1858/I/12'an; Maria Dolores, 1860/III/31'an; Josefa Agustina, 1862/IV/20'an; Maria Antonia, 1864/III/27'an; Juan Maria, 1866/X/21'an; ta Balentin Bitoriano, 1868/XII/10'an. (1)

Gurasoen izenak: Jose Maria ta Josefa; aitaren aldeko aiton-amonak: Jose Manuel eta Ana Franziska Narbaiza; amaren aldekoak: Manuel eta Maria Justa Azpiazu; guzi-guziak azkoitiarrak ziran.

Len ere esan degun bezela, senide auetatik Jose Mari ta Juan Mari bertsolari izan ziran.

Anaietan zarrena, Jose Manuel, etxerako gelditu zan. Ta oraindik ere aren ondorengoak jarraitzen dute baserri ortan.

Jose Mari bi aldiz ezkondu zan: lenengoz, Antonia Azpiazu'rekin; ta urrena, 36 urterekin, Elgoibar'ko alaba zan eta 24 urte zituan Maria Justa Izagirre'rekin, 1892/VII/19'an. (2)

Etxaube baserrian jarri ziran bizi izaten. Baserri ori Madariaga ballaran dago. Andik aurrera Etxaube esan zioten izen-goitiz. Bein batez, ordea, etxeak su artu

(1) Azkoitia'ko bataio-liburuak: XIII, 923; XIV, 53; XIV, 248; XV, 113; XV, 239; XVI, 115, XVII, 16; XVII, 100; XVII, 183.

(2) Azkoitia'ko ezkontz-liburuetatik.

zuan. Aur bat bazuten, Simon, gaur Azkoitia'n Kaxkon esanda ezagutzen dana, ta ura balkoitik bera bota bear izan zuten, eta gurasoak ere al zuten bezela erten ziran. Ondoren, kalean bizi izan ziran.

Jose Mari totela omen zan izketan, bafian, oi danez, kantuan etzuan olakorik batere.

Juan Mari, 1890/V/6'an ezkondu zan. Andregaiia Luisa Mendizabal zeritzan, azkoitiarra zan eta ogei urte zituan; senargaiak, berriz, ogei ta lau. (3)

Amar seme-alaba izan zuten: Margarita, 1891/II/23'an jaioa; Josefa Ramona, 1892/III/18'an jaioa; Juan Maria, 1894/VI/23'an; Balentin, 1896/XII/28'an; Luziano, 1899/XII/12'an; Eujenio, 1901/XII/8'an; Pedro Mariano, 1904/II/23'an; Marzelino, 1906/V/18'an; Eujenia, 1908/III/23'an; ta Jose Maria, 1911/V/7'an (4).

Geienak Floreaga deritzaion etxean jaio ziran. Zarrena, Margarita, aingerutan il zan.

Jose Mari abarketa josten jarduten

(3) Azkoitia'ko 7'garren ezkontz-liburua, 160'garren orria.

(4) Azkoitia''ko bataio-liburuak: XIX, 296; XIX, 348; XX, 74; XX, 196; XX, 330; XX, 419; XXI, 15; XXI, 121; XXI,209; XXI, 381.

zan, ta Juan Mari narruzko abarka josten.

Juan Mari, intxaur-aga ematen zuan gizona omen zan: luze-luze ta medarra. Ia bi metrokoa. Orregatik «Atano Luzia» esaten zioten errian.

Lenengo Juan Mariren aotik aorako bertsoak ipiñi ditugu; ta urrena jarri-aldi bi.

Jose Marirenak lau bertso-paper bildu ditut, eta aotik aorako bertso-pare bat; besterik ez.

Juan Mari, 1939/XII/25'an il zan, 74 urterekin, «*a consecuencia de estrechez mitral*», eliz-agiriak dionez (5).

Jose Mari, berriz, andik bi illabetera il zan 1940/II/25'an, 83 urterekin, «*a consecuencia de uremia*», eliz-agiriak dionez (6).

(5) Azkoitia'ko 12'garren eriotz-liburua, 145'garren orria.

(6) Azkoitia'ko 12'garren eriotz-liburua, 152'garren orria.

JUAN MARIA ATANO
(1866 - 1939)

AOTIK AORA

«Lertxundi-Txikiyenian txarriya il zan.
Bizi ziran Mendikote'n. Eta aitek esan
zion gure Luxianori, au mutil koxkorra
zan:

—Aizak: Lertxundiñâ jun bear dek eta
bertso au kantau bear dek.

Eta mutil koxkorrari erakutsi zion eta
alaxe bertsoa kantau zion:

Bertsua kantauko'izut,
Manuel Lertxundi,
odolkia emaiozu
mutil txiki oni;
artarako ustian
gaur etorri naiz ni,
aitarentzako ere
beste bat ipini.» (3)

* * *

(3) Eujenia Joaristi, Atanotarren arreba gazteena.

«Gure aite zanak patatie ein nai zula ta Ispizu'n semiai enkargau zion ekartztea, ekartzeko patata-azie, ta irurek alderako ekarriko zula baña irurek jo baña aren aztarrenik ez, ez etortzen. Ta zai gure aita.

—Aitu bear ziek, ba, etortze'anian!

Ta onela kantau zun:

Irurek jo dute ta
iye lauretara,
patatarik ez dator
leku onetara;
sekulaiuan ez det
egingo orretara
Ispizu'ren semie
juango zan lotara.» (2)

* * *

«Azkoiti'n bazan gizon bat Atanoren aitaren edade-kidakoa. Bere emaztea iñude bialdua zeukan. Lendabiziko aurra izan zuanean, aurra baserrira bialdu zuan, eta andrea iñude.

Taberna zeukan gizon orrek, eta, andrearen faltan, neskatxa batekin zegoan tabernan.

(2) Jose Mari Joaristi, Atano VII alegia.

Atanoren aitaren lagun aundia zan. Atano au, bein batez, onen tabernan zegoan, eta amarrak edo ola omen ziran, eta esan omen zion:

—*Bueno*, ni etxera natxiak.

Ta tabernari arek erantzun zion:

—Egon adi, gizona, oraindik etxera joateko ez dek berandu-ta!

Ta Atanok:

—Iretzat ez! Ik andrea falta dek, bñan nik zai zeukeat eta banatxiak.

Orduan gizon orrek onela kantatu zion:

Etxera joan eta
gizona bakarrik,
amen dagan onek
etzaukak bildurrik;
neskatxa ederra ortxe
zeukeat alperrik,
bart ere artu ziak
zapaldu ederrik.

Ta erantzuna Atanoren aitak:

Gizon au egon biar du
burutik nastua,
andria ere or du
orruntz bialdua,

kaballero zar bati
dirutan saldua;
ark ere billauko dik
zeñek zapaldua.

Esatera zarra da txarrik aditu nai ez
duanak ixilik egotea izaten duala ederre-
na, ta arrokeriz asi zitzaion ta uste det
umildu zuala.» (1)

* * *

Anek ere Atanoren aitarenak dira:

Azkoiti ontan daguen
pelotai pestia,
sei onelako iñun
egongo ezta:
Txakala ta Modesto,
Romualdo bestia,
Motxa eta Xuxtarra,
Pixtia trastia,
askok desiatzen du
oiek ikustia.

Modestok bolia ta
paret biai beitu,
Xuxterrak txokokuak
atera biaitu;

(1) Azkoiti'ko lagun batek esana ta itzez-itzez pa-
perein ezarria. Ez du bere izenik agertu nai.

Urzelai'ren lana da
erdiari beitu,
eziñ egiñik badu
lagunari deitu,
Txikitok atzetikan
dantzatuko ditu. (4)

* * *

«Aldazabal'ko Txikiye gurian egoten
zan gobernatzen. Da etzun, ba, kontrari-
yorik, da azkenian e aitek esan zion bi
bertso atera biar zizkola, ta arreba zarrak
kantau zizkion kuartuan zeon bitartean:

Txikia guk daukagu
lasterkai abilla,
birien azkar juaten
ori dek mutilla!
Iñor baldin badabil
kontrario billa,
jokatuko giñuzke
pezeta bi milla,
euskaldunikan bada
azaldu dedilla!

Txikia dala eta
jendiaren parrak!
Egiten dituenak
ez dirade txarrak!

(4) Jose Luis Beristain, Azkoitia.

Naiz probintzianue,
iguel naparrak,
alperrik ekarriko
dituzte azkarrak,
aurrien izengo'itu
orren atzaparrak!» (5)

* * *

«Atanotarretan zazpi seme ta bi alaba ziran. Aita abarka josten jardun oi zan. Floreaga'ko jauregi aundi ortan bizi ziran, eta sukalde aundia zan; ganadu-pareea gurdi garo aundiarekin sartzeko moduko atea.

Ta seme-alaba asko ta etorri gutxi etxera.

Larunbat-illunabar batean, aita su ondoan abarka josten ari zala, anai bat sartu zan. Eztakit zer anai izango zan. Ta etxera diru gutxi ekartzen, etzan garai artan dirurik asko irabazten-da.

Ta ate-otsa sentitu zuanean, aita gizagajoak buelta eman da onela kantatu zion seme orri:

(5) Jose Mari Joaristi, Atano VII alegia.

Naiz, aizak, negar eta
igual dek parre,
geldi dagon astuai
esan biar arre;
juan dan aspaldian
onelaxen gaure,
errial bat etzuan
ekarriko gaur e.» (6)

* * *

«Julianek esan zion nere anaiari: (7)

—Nere ezkerre baukek, ik jokauko
ukek pelotan!

—Nai al dek derrepente jokau ezkerre-
kin?

—Ik jokauko ote dîk ba nei?

—Goazen derrepente!

Jun zian Kontzejupera ta Julianek gal-
du. Ta gero aitari esan zion:

—Kanta'izu bertso bat, Luzia, badaki-
zu ze in detan da...

—Enteratua netxiok ze in dekan!

Ta onela kantau zion:

(6) Patxi Larrañaga ("Patxi Barbero"), Azkoitia'n
jaio ta Zarautz'en bizi dana.

(7) Julian Larrañaga, Atanotarren etxe berean,
Floreaga'n, bizi zana eta gaur ere an bizi dana.

Julian emen dator
erdi kaxkalduta,
tente egon eziñik
bazarrai elduta;
orain kafie artzera
leno bazkalduta,
itxusi gelditu da
partidu galduta.» (8)

* * *

Juan Mari Atano onek bere seme zarrenari, Juan Mariri, au berandu xamar etxeratu zan gau batean, bota zizkion bertsoak. Juan Mari seme ori, orain Atanilloren aita dana, orduan pelotan asi berria zan:

Juan Mari, nere esanak
biar dituk artu,
Kontzeju-pian sarri
ikusten aut estu;
partidua galduta
poltsikua ustu,
orrela mutillikan
ezin aberastu.

(8) Jose Mari Joaristi, Atano VII alegia.

Batzuetan pelotan,
bestian jokuan,
Jaungoikuak badaki
ori zer dagan;
asko gustatzen zaio
gabian kanpuan,
etxera etortzen da
peto jotakuan. (9)

Baña beste seme bat, Balentin, bertso-
tan egiten zuana zan, da onela erantzun
zion aitari:

Hermano, dirizkiat
milla amorio,
Kontzeju-pean sarri
ikuste'aut serio;
orren ezker-ziarra
zeñek jasoko'io?
Orri jokatze'ionak
igarriko dio. (10)

* * *

Atanotarretan, anairik zarrena, esan de-
gunez, Juan Mari zan, eta gazteena, Jose
Mari, Atano zazpigarrena alegia. Ta au

(9) Atano laugarrenak.

(10) Jose Mari Joaristi, Atano VII alegia.

mutil koxkorra zalarik, alkarrekin lo egiten zuten.

Gau batean, anai zarrena oiean zegoan, anketik miñez. Gazteenak, berriz, aitak oiera joateko ta joateko esanagatik ere, etzuan lotara joan nai. Aitak bertso bat bota arte etzala oieratuko esan zuan. Ta orduan aitak:

Juan Marik eukiko du
oia epelduta,
antxe jarri biar dek
ura bialduta;
ankia ere zeukak
erdi ustelduta,
laixter baztertuko dek
andikan elduta. (11)

* * *

«Kanpeonatuko bezperia zan. Ploriaga'ko sukalde zarrarian geunden aita, ama ta senide danok.

Mondragonesa ain zan gizon aundia ta ederra, ta amak esan zion Marianori:

—Motell, ez al aiz bildurtzen gizon aundi orri jokutzen?

(11) Atano Laugarrenak.

Atzera semiak kontestau zion:

—Ama, eskuak sano baldin baditut, irebazi!

Ta arreba zarrenak esan zion:

—Bertso bat kantau bear diat!

Ta kantau zion auxe:

Mondragonesak dauka
lagun amantia,
noiz jokatuko deben
zai dago jendia;
or ikusiko degu
nun dagon puntia,
ia, ba, Mariano,
azkartu ankia!» (12)

(12) Eujenia Joaristi, Atanotarren arreba gazteena.

SEMEA TXAPELDUN

Atano irugarrenak Mondragonesari kenduta jantzi zuan ainbeste urtean buruan gorde bear zuan txapela.

Orretarako iru partidu jokatu bear zuten alkarrekin, eta txapela, bi irabazten zituanak eramango zuan.

Aurrena Donostia'n jokatu zuten, 1926/X/31'an, ta Atanok 22-19 irabazi zuan. Bigarrena, berriz, Eibar'en, 1926/XI/7'an, ta Atanok osterira irabazi, 22-12.

Orregatik, lenengo biak irabazita, irugarrenik gabe ere, Atano zan txapeldun.

Bañan Mondragonesa gaixo egon berria zala ta orregatik galdu zuala ta abar esaten asi ziranak baziran, eta irugarrena ere jokatu zuten, Bilbao'n, 1927/I/1'an.

Ta partidu au ere Atanok irabazi zuan, ta 22-9 irabazi ere.

Azkoitia'ko Patxi Larrañaga'k onela esan digu: «Ni ere an nintzan, Bilbao'ko partidua ikustera joana. Ta oraindik ere gogoan daukat Atanoren aita nola ikusi nuan, brusa luze-luze batekin, lurrezko pipa ezpañetan eta urritz-makilla eskue-tan.»

Ta aitak, bere poza barrenean ezin gor-derik, bertsoak jarri zizkion semeari.

Jarri-aldi ontarako iru iturri izan di-tut: Atano laugarrena; orri bat makinaz idatzia, zeñek bialdu zidan apuntatu ez nuana; ta Azkoitia'ko Patxi Larrañaga.

Irurak itz-aldaketa asko dute beren ar-tean, eta bertsoak ere tokiz aldatuta.

Lenengo, doñua jarri degu: Patxi La-rrañaga'k kantatua ta Antxon Valverde'k magnetofonotik entzun ta paperean eza-rria.

Ta gero bertsoak: aurrena, Atano lau-garrenaren era; ta urrena, oarretan, bes-te biak dauzkaten aldaketak.

Ba-da-ki-zu-te gu-re txi-ki-a da-la an
 -kaz-koa-m-ña; kar-gapix-ka bat ar-tu-ko
 lu-ke a-le-gin-du-ko ba-gi-ña: a-si-e-
 ran da a-ka-ba-tzi-an dau-ka jo-ke-ra ber-di-
 ña, ber-di-ña, o-rren gor-pu-tza da-la di-o -
 -te go-mi-a-re-kin e-gi-ña.

- 1/ Zuk badakizu gure txikia
 dala andazko ariña,
 karga pixka bat artuko luke
 enpeñatuko bagiña;
 asieran da akabatzen
 dauka jugada berdiña,
 orren gorputza dala diote
 gomiarekin egiña.

2/ Eibar'ko plazan jokatu zuten
beste askotako moduan,
an izandako persona ori
askok daukate goguan;
Etxabe anaiak bezelako bi
etzeudela munduan,
Mallabi artuta bost tantorekin
bakarrik utzi zituan.

3/ Enpresa batek egun orretan
itzegin zion onela:
«Partidu-faltik ez dek izango
jokatzen badek orrela;
ez nuan uste oraindik baña
iretzako dek txapela!»
Ori esanda gañera propiñ
ogei duroko txartela.

4/ Jaia pasauta esaten zuten
an izandako gizonak:
«Zerekiñ eiñak ditu Atanok
besuak eta belaunak
tamaña orretan menderatzeko
pelotaririk onenak?
Bibote beltzak biarko zitik
ori autsiko duenak!»

5/ Kaballeruak etortzen zaizko
etxeko atariraño,
preguntatuaz: «Pelotaria
nun da *tercero* Atano?»
Egunian lau kontinuo dauzka
karta edo telefono,
estimazio au duanikan
ote da besterik iño?

6/ Nere laguna, poztuko zera
bertso oriek aituta,
Euskalerrian ez dago besteik
pelotariei beituta;
Atano Txikia bezelakorik
munduan ezta sortuta,
monumento bat jaso beaiogu
danak merezi ditu-ta.

7/ Monumento au jasoko'ioгу
bere iduriarekin:
praka txuriak, alkandoria,
gerriko, txapelarekin,
liburu aundi bat eskribituta
bere azaña danakin,
gero gaztiak jakin dezaten
ispillu eder onekin.

8/ Liburu orretan jarriko dira
partidurikan onenak,
Ulazia'kin Bilbo'n ta Eibarr'en
jokatutzen zituenak;
bera bakarrik etzan tristetu,
emen e baziran penak,
ez dakit ori nola leikian
erria maite duenak.

9/ Ez al dezute beñere aitu
mondragotarren diarik:
mundu onetan jaiotakoak
etziola emango urrik?
Amar urtian orrek euki du
jende guzia bildurrik,
jokatu dio ta atera du
amabirekin bakarrik.

10/ Makiña bati gustatu zaio
Marianoren sarrera,
gorputza txuri-txuri jantzita
erten du danen aurrera;
oiek esanaz etorri giñan
guztiok erri aldera,
emen ditugu mondragotarren
dirua eta bandera!

11/ Bilbao'n ere jokatu zuan
partidu kuriosua,
erretratuen aldamenian
etorri zan abisua;
ernegatutzen egon zedilla
sufritu ezin dun gaixua,
jartzen zioten Atano zala
pelotarien maixua.

12/ Manorik mano aprobatzeko
beti eukitzen du poza,
Marianori tantoak sartzen
plazan ez dago erreza;
danak sallian bentzitu ditu,
azkena Mondragonesa;
mundu onetan bat ez dago orain
orri jokatzeko gauza. (1)

(1) Makinaz idatzitako orriaren aldaketak: Onek, zortzigarren tokian, aurrekoak ez dakarren bertso bat du:

Donosti'n ere ikusi degu
orren abilidadie,
lanikan asko izango degu
ikusten partidu obie;
sake gogorra, bolero urrengo,
an zan istillu gorria,
askok zioten Atano zala
pelotaien erregia.

Ontaz gañera, beste bederatzi bertso, goiko era

orretako 9, 6, 7, 8, 1, 2, 11, 5 ta 10'garrena, orden ortan, arestian jarri deguna tartean zortzigarren tokian daukatela.

Itz-aldaketak: 1/6: dauzka joerak berdiñak; 2/1: jokatu zuen; 2/2: beste askotako moduen 2/3: an izendako personak ori; 2/4: ôindik daukate goguen; 2/5: Etxabe anaiak bezelakorik; 2/6: etzeuela munduen; 5/8: ote da besterik iñun; 6/7: monumentua jaso beiogu; 7/1: Monumentua jaso beiogu; 7/4: gerrikue txapelakin; 7/7: mundu guztiak jakin dezaten; 7/8: ispillu eder orrekin; 8/4: jokatuak zituenak; 8/7: ez dakit ori nola lezaken; 9/1: ez al dezute sekule aditu; 9/5: amar urtian or eduki du; 10/1: majiña bati gustatu zaie; 10/5: ango kontuak esanaz gatoz; 10/8: diruak eta txapela; 11/2: partidu kuriosue; 11/4: artu zuen abisue; 11/6: sufritzen zenguen gaixue; 11/8: pelotarien maisue.

* * *

Patxi Larrañaga'ren aldaketak: Onek bost bertso, 1, 5, 11, 8 ta 2'garrena, jarritako orden ortan. Itz-aldaketak: 1/1: Badakizute gure txikia; 1/4: alegin-duko bagiña; 1/6: dauka jokera berdiña; 2/1: Eibarr'en ere jokatu zuten; 2/3: an izandako gizonak ori; 2/4: asko daukate goguan; 2/5: Etxabe anaiak bezelakorik; 2/6: etzeguela munduan; 5/3: galdera egiñaz: "Pelotaria; 5/7: estimazio au dadukanik; 8/3: Bilbo'n ta Eibarr'en Ulazia'kin; 11/6: sufritu ezin zun gaixua; 11/7: jartzen zioten Atano dela.

BERTSO BERRIAK

AZKOITI'KO ARTO-JOKUAREN GAÑIAN JARRIAK

Atano Zazpigarrenari onela jaso genion:

«Susteta'k eta Lertxundi'k jokatu zeben zeñek arto geio euki ganbaran. Susteta zan baserri aundie, ta Lertxundi txikie. Ta ze pasau da? Ein debe tranpa txiki bat: beste basarritatik Lertxundi'n ganbarara eraman, da batek pentsatzen zun geio zeukela, baño bestiek euki. Gero jun dira saskien neurtzera ta Lertxundi'k arto geio. Ta gero bertsoak kantau geure aite zanak.»

Ta iru bertso eman zizkigun. Gero etxean bertso-papera arkitu genduan.

Paperaren lenengo bertsoan urtea esaten da: 1886. Egilleak ogei urte zituan orduan.

Atano Zazpigarrenak apustua Susteta'k eta Lertxundi'k egin zutela esan zigun. Bertsoak irakurrita, Muno'k eta Lertxundi'k egiña zala ageri da. Suste-

ta, berriz, ontzako biak gorde zituana zan.

Muno ori, Arrieta-Muno'n ezkondata bizi zana zan. Ta bertsolaria bera ere.

Bertso-papera «Azpeitia — Imp. de P. Martínez»-en argiratu zan, eta Loiola'n, Aita Jose Inazio Arana zanaren bertso-bilduman, arkitu nuan.

1/ Milla ta zortzireun da
larogei ta seian,
para naute bertsuak
ipintzeko gaian;
predikatuko diet
euskera garbian
zer kaso gertatu dan
Azkoiti'ko errian.

2/ Nola dan esango det
umil ta serio,
ondo esplikatzia
danok degu naio;
beren laboriak
oso ziran fio,
gizon bik egin dute
zeñek arto geio.

3/ Tema ori izango da
ederki kostia,
estimatuko nuke
auek ikastia;
zeñek deben esango
dizuet festia:
Manuel Muno'kua,
Lertxundi bestia.

4/ Ontzako bana bota
bela jokatzeko,
zeñek arto geiago
saskian neurtzeko;
gizonak para ziran
erabakitzeko,
faltatutzen zuanak
oiek galdutzeko.

5/ Jokua zerratu da
grazia onetan,
birian juan giñan
izketa leunetan;
gezurrik ez dezute
billatuko kantan,
Muno'ri damutu zako
Martitako bentan.

6/ «Guazen!» esanda giñan
bentatik atera,
testiguak artuta
Muno'ren etxera;
agertu etzarian
artuak neurtzera,
ontzakuak artuta
Lertxundi etxera.

7/ Diruak edukitzen
Pedro Susteta'ko,
irabazten zuanari
entregatutzeko;
testigu paria zan
erabakitzeke,
oiek juzgatu dute
Lertxundi'rentzako.

8/ Muno etorri zako
biaramonian,
ia aren ontzakua
nun duan galdian;
arrazoi plontua
zeukan debaldian:
«Irabazi duanak
eaman du aldian!»

9/ Susteta eratxi du
aguazillakin,
ontzakua nun duan
nai duala jakin.
«Irabazi zuanak
dadula berekin,
esperantzarik ez izan
geiago arekin!»

10/ Auzitara gerade
gero abiatu,
esperantzatan baña
utsian gelditu;
batek bezela ez du
bestiak kabitu,
nunbait erregalotan
engañatu ditu.

11/ Auziak akabatzeko
zituan idiak,
Muno'k eginda zeuzkan
orduko bidiak:
ontzakuak jasotzeko
bakoitzak beriak,
gastuak erdibana
aintzen du legiak.

12/ Lertxundi'k zuanian
sententzia artu,
ori orla egiten
ere atrebitu:
«Azpeiti'ra biar det
oraiñ abiatu,
galtzalliak gastuak
pagatuko ditu.»

13/ Erabilliak dira
bakiña bat jira,
gizon ori jua da
berriz Azpeiti'ra,
iñor engañatzeke
zeguan tokira,
lengo faltsiya danak
an agertu dira.

14/ Juezak eman die
joko ori ontzat,
sententzia bota du
gizon orientzat;
gauza onik ez dago
damutuarentzat:
ontzakuak lenian,
gastuak beretzat.

15/ Azpeitia'n zutenian
sententzia artu,
bat ori postu zan da
bestia penatu;
endreduan dabillenak
orlakuak oi'tu,
dozena erdien bat ontzako
dantzatuak ditu.

16/ Gauza onik eztaka
beñere jokuak,
munduan asko gaude
probatutakuak;
erbestetik badira
gizonak sartuak,
Muno'ri bajatu dizko
Barrena'k artuak.

17/ Nai badezu bertsuak
atera onela,
gezurrak kontatutzen
ez jardun orrela;
jakinda gaude Muno'k
kontatzen duala
juramentu faltsua
guk egin degula.

18/ Abisatuta giñan
Kontzejura juan,
zer zan esplikatzeke
ordena zeguan;
geroko bildurrikan
euki ez bazuan,
guk ez baña ark berak
laster eingo zuan.

19/ San Andres gabian zeuzkan
erronka aundiak,
gero ikusia da
istillu gorriak;
orra emeretzi bertso
atera berriak,
Aranguren ezkerra ta
Astiarrabiak.

* * *

Tomas Zubizarreta'k (Zendoia, Martirieta, Azkoitia) kontatera ta bertso auek eman dizkigu:

«Muno, bertsuak berari atera zizkio-tenak aditzen omen zegoan; Astigarrabiya kantatzen da Muno aditzen, Zumarraga'n.

Ta, an zegola, ba Muno'k dantau omen
zuen:

Kanta salzten ari da
Astigarrabiya,
etxe txikiya dute,
badauke premiya;
aitz asko inguruen,
parajez egiya, (1)
papel truke billatu
naiko'ek andragaya.

Ta Atano Luzia omen zegon albotik
aditzen, da jakoa nola egin zan ikusita
aure. Arek kontestau omen zion:

Azkoiti'ko kale gôneko
fabrike-eskiñan
joko ori ein zanian
gu ere an giñan
artua izan bazendun
zenbaiten tamañan,
otxandutzen erreza
izango etziñan.»

* * *

(1) Egiya, Azkoiti aldean: toki tontorra, aitz ga-
ñekoa bezela.

Bertso au beste onela eman zigun Atano Zazpigarrenak:

Kaletik irten eta
fabrike-eskiñan
joko ori ein zanian
geu ere an giñan;
artue izen bazendun
Lertxundi'n tamañan,
sojetatzen erreza
izango etziñan.

JOSE MARIA ATANO
(1858 - 1940)

«GURE ERRIKO FESTAK...»

Jose Maria Atanok bertso asko kantatuko zuan bere denboran aotik aora. Bañan auek besterik ez degu jaso al izan. Auek, Azkoiti'ko Patxi Larrañaga'ri zor dizkiogu; baita aurreko adierazpena ere.

«Etxaube edo Kaxkabeltxa esanda guk ezagutu genduan, gazteak giñala.

Eztakit nungoa izango zuan, bañan nola bertsoan ondo egiten zuan, onela go-biratu zuan bere lagun zar bat, Ama Birjiña Agoztukoetan Azkoiti'n egiten diran festetara:

Gure erriko festak
Birjiña Aguztuko,
gonbiratutzen zaitut
pozik eta gustoz,
baita tripa bete're
ogi edo artoz;
eun ortan bazkaltzera
gure etxera atoz.

Len esan bezela, eztakit nungoa izango
zan, bañan erantzun omen zion:

Asko ixtimatzen det
zure konbitia,
ez nuke nai iñori
penik ematia;
pentsauko baldin banu
aruntz juatia,
bazkari bateâtik
biaje luzia.

Ta gure Etxaube'ren erantzuna:

Etzaitugu utziko
bakarra emanda:
gosari, bazkariya
eta merienda;
gero afaldutzeko
ere zerbait on da,
eltzekondua ona da
zopa bi eginda.»

(1884)

AZKOITIARRAK ITZIAR'ERA EGINDAKO ERROMERIA

Bertso auetan, paperaren izenburuak dion bezela, azkoitiarrak Itziar'era egin-dako erromeri baten berri ematen zaigu. Joan-etorria oñez egin zuten.

Garai artan olako erromeririk asko egin oi zuten azkoitiarrak. Itziar'era ez-
ezik, Arantzazu'ra ta Lezo'ra ere bai, urrengo bertso-sailletan ageri danez.

Ta onako sail au nork egin zuan, az-
ken bertsoan esaten zaigu:

iñork jakin nai duanik bada
Jose Mari det grazia.

Ta gero, orri azpiko oar batez, Jose
Mari ori Atano baserriko semea dala
adierazten zaigu.

Ona bertsoak:

- 1/ Komeni da ta jartzera nua
bertso berri bat edo bi,
grazia on bat eskatzen diot
Maria Santisimari;
Iziarrera juanda izan da
pelegrinua ugari,
pasadizuak nola diraden
ditut esplikatu nari.

- 2/ Lendabiziko arratsaldian
erteera zan asia,
amabietan juntatu giñan
elizan jente guzia,
zergatik danen emendik ara
oro biraje luzia,
bitarte orretan izan genduen
Jaungoikuaren grazia.

- 3/ Bazkal onduan atera giñan,
illuntzian allegatu,
sarrera ona egin genduen
musikaz eta kantatu;
iziartarrak kanpaiak juaz
giñuzten errezibitu,
Ama Birjiñak gure pausuak
goguan izango ditu.

4/ Azkoitiarrak egin genduen
lendabiziko sarrera,
jente guzia zuzendu eta
Ama Birjiñen aurrera;
San Franziskoren seme on batek
igo zuen kurpitora,
ongi etorri egin ziguten,
nunbait mereziak gera.

5/ Ama Birjiña bisitatuta
atera giñan kanpora,
alojatzeko paraje billa
juateko deskansatzera;
goizian jaiki ta bereala
sakramentua artzera,
pelegrinuen eguna zan da
Maria alabatzera.

6/ Egun orretan seiretan gendun
komunio jenerala,
iru apaizek Jauna partitzen
egin zuten egiñala;
enteratu naiz bi milla eta
zazpireunen bat giñala,
Ama Birjiñak pensatuko du
biguntzen asi gerala.

7/ Goitikan bera bide aldera
egin giñaden juntatu,
gero andikan prozesiuan
elizarano segitu;
zillarrezkua ta urrezkua
kalizak erregalatu,
Ama Birjiñak egunen baten
ondo pagatuko ditu.

8/ Meza nausia ikusi eta
sermoi ederrak aitzeko,
enkargurikan asko badegu
gaizto daudenak ontzeko:
bizio txarrik baldin badegu
bertan berak largatzeko,
Ama Maria or daukagula
guzioi lagundutzeko.

9/ Asi biegu erri aldera
juateko preparatzen...
Agur, Maria Iziar'kua
grazia dizut eskatzen:
ez gaitzatzula geiago utzi
pekatuetan erortzen,
zure eskuan gelditzen gera,
egon zaitez atenditzen.

10/ Elizatikan atera eta
etxera jente guzia,
Birjiña Amari eskaturikan
laguntza eta grazia;
bidian bera akonpañatzen
kabildu ta justizia,
baguaz orain, eskerrak milla,
agur, Iziar maitia!

11/ Iziartarrai agur eginda
onuntz giñan abantatu,
Zestua'n ere sartu giñan da
Salbe ederra kantatu;
azpeitiarrak bidera ertenda
giñuzten errezibitu,
gure Artzaiak egunen baten
ôindik ordainduko ditu.

12/ Elizatikan atera giñan
andik illunabarrian,
prozesioan kalia gora
errespeto ederrian;
kantore danak gerekin eta
soñuzaliak aurrian
errezatuaz pasatu giñan
San Inazio parian.

13/ Bide guzian etorri giñan
errezo eta kantuan,
argi asko ta ederra zeuan
Santa Kruz'ko komentuan;
Santa Klara'n bai ederki ere
bide errial onduan,
berandutxua izanagatik
illunikan ez genduan.

14/ Ama Birjiña billatu degu
Iziar'kuen laguna,
estandartiak eta atxakin
jente diena gugana;
mundu guziak antz eman dio
onetik bear deguna,
biraje orretan portatu zaku
geure erretore jauna.

15/ Argitasun bat billatu degu
izugarria errian,
Ama Birjiña eraman degu
elizarano erdian;
entregatuta ipiñi degu
bere paraje garbian,
sekulan eziñ aztu liteke
ori gure memorian.

16/ Amaseigarren bertsuarekin
despedida det asia,
iñork jakin nai duanik bada
Jose Mari (1) det grazia;
eskerrak milla, portatu dira
kabildu ta justizia,
faltarik badet barkatu neri
utsegin dedan guzia.

(1) Atano-basarriko semia Azkoitia'n. (Bertso-pa-
peraren oarra).

(1886)

BERTSO BERRIAK

Arantzazu'ko Ama Birjiñaren koronazioa 1886'garren urtean izan zan.

Ara nola esaten zigun Aita Villasante'k eskutitz batean: «1963 urriak 19: ... Arantzazuko Ama Birjiñaren koroazioa 1886 urtean izan zan, garagarrillaren 6-an. Eta bai egun orretan eta bai aurreko eta ondoko egunetan elizkizun aundiak eta sonatuak izan ziran emen Arantzazun. Koroa jarri zuena, Vitoria-ko Obispo Jauna izan zan: Don Mariano Miguel Gómez, alegia. Aita Adrian Lizarralde bere Arantzazuko Kondairan kapitulo oso bat dakar gertaera ortaz. («Historia de la Virgen y del Santuario de Aránzazu», cap. XVIII: Solemne Coronación canónica de la sagrada imagen.)

Argibide auek Pello Errotaren liburu

batean eman genituan: «Pello Errotak jarritako bertsoak», Auspoa 33, 101'garrren orri-aldean. Asteasu'ko erria koronazio bezperan pelegrinazioan joan baitzan, eta ondoren Pellok bertsoak jarri baitzitan.

Bañan Asteasu'koa ez-ezik, Azkoitia'koa ere joan zan egun orretan, eta bertsoak zeñek jarri ere izan zuan. Egilleak berak salatzen digu bere izena azken bertsoan:

Jose Mari naiz Atano'kua,
Izarraitz onduan bizi...

Bertsoak Loiola'n Aita Jose Inazio Arana zanaren bertso-bilduman dagoan bertso-paper batetik ditugu. Bertso-paper ori «Azpeiti-an P. Martinez-en mol-detegian.» argitaratu zan.

- 1/ Milla zortzireun kunpliturikan larogei ta sei urtian,
Arantzazu'ra juanda izan gera koronazio batian;
premiatuak egongo giñan pekatarien artian,
ditxa ederra etorri zaigu pixka bat ondu gaitian.

- 2/ Biaje orren gañian nua
berso berriak jartera,
Juniona da señalamente
bostgarrenian atera;
Ama Birjiña bisitatuaz
obra onak egitera,
modu ortako funtziorikan
sekulan izan ote da?
- 3/ Azkoiti'tikan juañ giñaden
kuadrilla bat umilla,
esperantzia eaman genduen
egongo zala ongilla;
jentia franko inguratu da
Ama maite onen billa,
Jauna artuak izango dira
gutxienaz amar milla.
- 4/ Arantzazu'ra juanda gera
obra onetan asiak,
konfesatu ta Jauna artzian
eman dizkogu graziak;
gure animak gelditu dira
doai ederrez jantziak,
Ama Mariak maiteko gaitu
an izandako guziak.

- 5/ Jentia prankok egiñak gera
egun orretan bisita,
juan diranak arritu dira
nola dauen ikusita;
lastimaz zeukan koroe ura
pixka bat maizten asita,
oraiñ ederki ipini dute
urrezko ederra jantzita.
- 6/ Pekatariak egin dezagun
bigundutzeko modua,
Birjiñagana jarri gaitian
makurturikan burua;
errezatzeko izaten bada
an bezelako gogua,
dudarik ez det orretan jartzen:
guretzat dago zerua.
- 7/ Biaje ori aztu ezinda
beti dadukat buruan,
ez dakianik baldin badago
saiatu artzen goguan;
mundu pixka au pasa dezagun
aingeruaren moduan,
desgustorikan izan ez dedin
eriotzako orduan.

- 8/ Jauna artzera iñor ez juan
bere anima nastuta,
deskuiduan pekatoren bat
konfesatzia aztuta;
Luzifer eta bere lagunak
jarriko dira poztuta,
obra onetan dabillanikan
ikusi nari ez du-ta.
- 9/ Pekatariak juan gaitian
sarritan konfesatzera,
obra onari beti segitu,
orla galduko ez gera;
mundu onetan ordu bi daude
konparazio batera,
gero ez dago erremeiorik,
oraiñ kontuak atera.
- 10/ Sermoilariak kulpitutikan
eman digu aditzera
Birjiña Amaren obra onari
ez largatzeko atzera;
pekatariak bagaude ere
konbertituko al gera,
gero anima juan ez dedin
pariseuen etxera.

11/ Mundu onetan eukiko degu
askok zerbaiten faltia,
zuzen kunplitu al baldin bada
bakoitzak bere partia;
ez dakigu noiz izango degun
emengo errematia,
gaiztuarentzat itxia dago
zeruetako atia.

12/ Luzifer orrek egon bear du
galtza gorriak jantzia,
bereganatzen ari emen da
gaizki dabillen guztia;
umildadian segi dezagun
nai ez badegu galtzia,
obra onakin obeko degu
ori mendian artzia.

13/ Pekatariak izaten ditu
obligazio estuak,
gere animak garbitu eta
oraiñ gaude poztuak;
alde batera utzi ditzagun
mundu ontako gustuak,
bestela faltak billatuko'izku
gure Jaungoiko justuak.

- 14/ Obispo Jaunak egin dizkigu
suplika izugarriak,
orain onetan mudatu bear
ez bagerade arriak;
zelai santuan izango dira
ordena estu ta larriak,
obra onak an biarko dira,
ez du balio urriak.
- 15/ Mundu onetan zuzen ibilli,
alare naikua lan da,
guretzat dator kalte aundia
pekatuakin egonda;
kargua zorrotz artuko digu
Jesukristok eramanda,
engañatzerik ez da izango
erregaluak emanda.
- 16/ Jose Mari naiz Atano'kua,
Izarraitz onduan bizi,
amaseigarren bertsuarekin
despedida nai det asi;
mundu ontako pasadizua
orra nik adierazi,
papel bakoitza amar zentimo
iñok nai badu erosi.

BERTSO BERRIAK

LEZO'KO PEREGRINAZIYOREN GAÑIAN JARRIAK

Bertso aukerak ere azkoitiarren beste peregrinazio baten berri ematen digute. Bañan egillearen izenik ez dute esaten.

Ala ere, bertsoak irakurri bezin laixter, Jose Mari Atanorenak izango ote ziran pentsatu genduan, erriko peregrinazioetako bertso-jartzallea bera baitzan.

Ta, ain zuzen, Atano Zazpigarrenak baietz esan digu, bertso aukerak bere osabarenak dirala. Atano Zazpigarrena Jose Mari Atano bertsolariaren illoba ta besoetakoa da. Aren esana ontzat ar genezake, beraz.

Bertso-papera, «Azpeitia: Imp. de P. M.»-an argitaratua dago; ez nuan apuntatu zeñi jaso nion.

1/ Bertso berriak, nere kristaubak,
bear nituzke atera,
Gipuzkoa'n zer gertatutzen dan (1)
orain nua esatera;
persona asko uniturikan
juanak gera batera,
o! Santo Kristo Lezo'koari
bisita bat ematera.

2/ Urriko illaren amalauba zan
au peregrinaziyua,
persona askok artu genduban
juateko intentziyua;
aprobetxatzeko orain izan da
gustoko okasiyua,
o! Santo Kristo Lezo'koari
diyogun deboziyua.

3/ Erromeri au disponitubak
lendabiziko aurrena
San Franziskoren seme-alabak,
au da Irugarren Ordena;
bear bezela obratu eta
zerura bide zuzena,
egin dezagun animarentzat
ori gauzarik onena.

(1) Bertso-paperean: *gertatzen*.

- 4/ Azkoitiarrak abiatubak
amabiyetan bidian,
egun argirik agiri etzan,
dudarik gabe gaubian;
Zumarraga'tik goitikan bera
juanak giñan trenian,
alegre edo pozak zoratzen
txit debozio onian.
- 5/ Urriko illaren amalau ori
beti gendukan goguban,
alde aurretik preparatubak
bakoitza al dan moduban;
estaziyotik Lezo aldera
juan giñaden kantuban,
prozesio bat ederragorik
posible ez da munduban.
- 6/ Esan da gisan prozesiyuan
kantuban danok segitu,
Lezo'ko erriko jende nobliak
bidean errezibitu;
umil da leial kariño onean
bear bezela serbitu,
beste batean juateko ere
pozak giñaden gelditu.

7/ Arzobispo jauna gurekin zana
ori degu Bostra'kua,
ta Elizaren guraso edo
jakinduri aundikua;
erromerian dudarik gabe
oso bere gustokua,
bisitatzera juanda izan da
Santo Kristo Lezo'kua.

8/ Urrutitikan juanak giñan
aurretik preparatubak,
pekaturako griña gaiztubak
bertatik gorrotatubak;
bakoitza geren erri noblean
txit ondo konfesatubak,
ta Santo Kristo Lezo'koaren
aurrian Jauna artubak.

9/ Estu ta larri arkitzen giñan
personarikan geienak,
eta elizan eziñ kabitu,
baginduzen pranko lanak;
komulgatuta Jaungoikuari
graziak emanak danak,
orren saria ordainduko du
gure Santo Kristo Jaunak.

10/ Persona asko eliza bistan
ango kabitu eziña,
kanpo librian meza emana,
orrena dago jakiña;
San Franziskoren seme leialak
sermoi eder bat egiña,
guri graziak ematen ere
egit zuan alegiña.

11/ Aita Ugarte aritua zan
gogotikan predikatzen,
pelegrinuen egite ona
txit asko zuben famatzen;
Jesu-Kristori zenbat zor zaion
jartzeko konsideratzen,
bere biziya emateraño
danok maitatu gifuzen.

12/ Jesu-Kristoren tormentu oiek
ezin nezake juzgatu,
azotatuta gurutz-iltzatzen
gorputz guztia puskatu;
dudarik gabe zorretan gaude,
guziok arren prestatu,
egit ditugun ofensa oien
barkaziua eskatu.

- 13/ Erromeri ori dudarik gabe
askorentzat gustosuba,
ondo egiña animarentzat
guzizko baliosuba;
o! Santo Kristo Lezo'koa da
txit oso milagrosuba,
konsideratzen jarri ezker
baita ere lastimosuba.
- 14/ Ogei ta sei ordu azkoitiarrak
pasiak modu orretan,
geren errira allegatubak
gaubeko ordubietan;
denbora ori igarua zan
Jaungoikuaren gauzetan,
probetxu oberik animarentzat
eztago mundu onetan.
- 15/ Fede onian segi dezagun
munduban gauden artian,
Santo Kristuba, eskatzen dizut
grazia errematian:
konbeni bada, sartu gaitzazu
zerubetako atian,
ango gloria goza dezagun
eternidade guztian.

(1907)

BERTSO BERRIAK
BANDERA GORRIARI ETXAUBE'K
JARRIYAK

1907 urtean Azkoiti'ko kongreganteak bandera gorria egin da bedeinkatu zuten; bigarren bertsoak dionez:

urrezko letra-duna
bandera gorriya.

Orregatik, bertso auei bandera gorriarenak esan oi diete Azkoiti'n.

Izenburuak Etxaube'k jarriak dirala dio. Len ere esan degunez, Etxaube ori Jose Mari Atano'koa zan, eta, ezkondu ondoren Etxaube baserrian bizi zalako, izengoiti ori erantsi zioten.

Bandera gorri ori oraindik an dago, Azkoiti'n.

Bertso-papera «Imp. de S. de Diego — Eibar» moldiztegiak argitaratu zuan, eta Lekarotz'en Aita Donosti zanaren bertso-bilduman arkitu nuan.

1/ Milla beratzireun da
zazpigarrenian
kantak jartzera nua
umore onian;
orra amasei bertso
biñiripiñian,
emengo kongregante
umillen gañian.

2/ Abonatzera nua
Azkoiti'ko erriya,
zergatik egin deuben
zirkulo berriya;
gauza bat agertu da
ikaragarriya:
urrezko letra-duna
bandera gorriya.

3/ Lastima zan egotia
orrelako gabe,
egiñ dira bandera
urre-dunen jabe;
bakoitzak puska bana
bota emen debe,
kongregatu guztiak
portatu dirade.

- 4/ Zirkuloan sartuta
bandera bapua,
nik badakit deguna
danon gogokua;
ez da billatzen errez
gaur orrelakua;
Kristoren odolakiñ
gorritutakua.
- 5/ Etxe onetan dago
Jaunaren graziya,
ez dakit nun sortu dan
orlako aziya;
igasi juana da
inpernu guziya,
On Balentin Alberdi
degu nagusiya.
- 6/ Beorregana nator,
erretore jauna,
badakit dana gizon
prestua ta ona;
eskusa andi gabe
egiten du lana;
berdin juzgatutzen det
konpañiya dana.

- 7/ Alkate jaunarentzat
oraingo puntua,
suprituko al deube
nik dedan kantua;
zuzen erabillitzen
dakite kontua,
biba gure erriko
ayuntamentua!
- 8/ Aita Laskibar jauna,
mesedez aditu:
kongregantiak bere
kargu emen ditu,
al baldin badu ondo
bear diye beitu,
portatuko da danak
zuzentzen baditu.
- 9/ Alegiña egitia
diyot nik espero,
Loiola'tik onera
etorri ezkerro;
bigundu samartuak
dira onezkerro,
beori libratzen da
saiatu ezkerro.

10/ Sarri samar bear du
kulpitora iyo,
andikan predikatu
seriyo-seriyo;
beorrek ezin leike
esan baño geiyo,
bigundutzen ez danak
igerriko diyo.

11/ Munduban izan bêr du
ona ta umille,
zergatikan dabilten
animaren bille;
batzuak burla einda
teatru ta baille,
gero Luziferrekin
konpondu dedille.

12/ Epelde kapitan da
Laskibar nagusi,
bostegun kongregante
dira oiekin nasi;
kuadrilla obeagorik
nik ez det ikusi,
gogor jarri dirade
bandera ta guzi.

13/ Aita ori ez dabill
guretzat kaltian,
mutill-talde ederra
daduka batian;
plantatuta gaude gu
otsegiñ artian,
alkar ikusi daigun
zeruko atian.

14/ Artzai jauna, eman
bear diot aitzera:
sarri etorri bedi
ardiak biltzera;
zabaltzen bazaizkiyo
juntatu atzera,
guztiakin zeruban
sartuko al zera!

15/ Aita Laskibar jauna,
iduki goguan:
beorrek ainbat kontu
ez det nik buruan ;
deskuiduan lenago
egiten bada juan,
neretzako lekua
alkantzatzen duan.

16/ Orra amasei bertso
atera berriyak,
zerbait merezi zuan
Azkoiti'ko erriyak;
kastuak egin dira
ikaragarriyak,
danak pagatuko'itu
bandera gorriyak.

«ANDREGAIA BADAUKAT...»

Atanotarren urrengo gizaldian, pelotari-gizaldian alegia, bertsolari-kutsua ere izan zuan anai batek.

Anai ori Balentin izan zan. Txakala esaten zioten ez-izenez. Pulmoniaz il zan, 1941/I/17'an, 44 urterekin. Mutilzar gelditu zan. Parrandero xamarra omen zan.

Arenak sei bertso bildu ditut, ez-ize-
nez «Apa» ta izenez Luis M.^a Irureta da-
nari, Atano laugarrenari ta Patxi Estra'ri
jasota.

«Apa» ta Txakala lengusuak ziran. Bertsoak, gaztetan neskatxetara joaten nola asi ziran adierazten digute.

Doñua: «Apa» eta Patxi Estrak kantatua; Manuel Yaben eta Ambrosio Zatarain'ek magnetofonotik entzun da paperean ezarria.



1/ Andregaiia badaukat
nere gustokua,
lenengo itzetikan
agindutakua;
Juliana du izena,
neskatxa majua,
orrek izan biar du
Ondamendi'kua.

2/ Oleta'tik etxera
neskatxa banakin,
ezkontzeko asmuan
laurok alkarrekin,
ni Julianakin da
Apa Pantxikakin,
Ondamendi'kuak dira
nai duenak jakin.

3/ Oleta'n kurioso
gendun meriendatu,
beratziña errial
gañera pagatu;
Apak mozkor galanta
zuen arrapatu,
atzian gelditu ta
gerrikua galdu,
gizon batek billau ta
zion entregatu.

4/ Andregaiakin leno
nuen pasiatzen
asarrauko zanikan
ez nuan pentsatzen;
ikusi ninduanian
pixka bat eraten,
geroztikan itzikan
ez dit nei egiten.

5/ Bigurite'n genduan
tratua zerratu,
andik jai gutxi barru
ein da asarratu,
ni baño obiagua
dubela topatu,
Juliana, al badezu
aberatsa artu. (1)

(1) Juliana moja joan omen zan.

* * *

Ta seigarrengoa puntu luzean:

Ondamendi'ko Julianakin
nebillen ezkontutzeko,
esaten ziran Luixa Bentakok
ezer ez sinistutzeko,
belarri baten sartzen zirana,
bestetik ateratzeko;
alaba ederra ein zuben amak
Txakala engañatzeko.

ESTRADA BERTSOLARIA
(1867 - 1912)

NERE AITA ZANA

Nere aita zana, Jose Maria Lete Arri-
zabalaga deitzen zan, bañan Jose Mari
Estra esanda ezagutzen zan.

Azkoiti'ko E s t r a d a baserrian jaio
zan (1), eta ezkondu arte bertan bizi izan
zan.

Abarketa josten zuan bere lana, eta
tarteetan bere anai Joxe Iñixiori, etxera
ezkonduta zegoan anaiari, laguntzen zion
baserriko lanetan.

Urte oietan, geien bat ibilli zan Balda'-
ko anaiekin, Cuende anaiekin. Auek zi-
ran Pako, Diego ta Juan Maria, ta dun-
tzaiña jotzen zuten, eta nere aitak dan-
borra. Garai artako eztaietan, baserrie-
tan batez ere, ta inguru-erritetako peste-
tan asko ibiltzen ziran.

Orra urte batean Eibarren, San Juane-

(1) 1867/VII/22'an jaio zan. (Azkoitia'ko 17'ga-
rren bataio-liburuan, 134'garren orrialdean.

tako gau batean ikusi zutena: Ari omen ziran duntzaiña jotzen eta plaza bete jente dantzan; eta or omen dator andre lerdan bat, esku biak gerrian zituela, dantzarietara begira, batedonbat billatu nairik bezela, eta or omen dijoa plaza erdi aldera, ta mutillekin dantzan ari zan nexka gazte bati eltzen omen dio besotik, eta, ezker-eskubi bi belarrondoko eman ondoren, an atera omen zuan plazatik kanpora. Nere aita zanak ala kontatzen omen zuan.

Erriko musika-bandan ere tanborra jotzen omen zuan. Solfeorik ez omen zekian, bañan, itxura danez, belarri ona izango zuan.

Auzoan ere oso extimatua omen zekaten. Makiña bat karta egiten omen zien auzoko neska-mutille; auetako batzuek soldadu eta besteak neskame, eta auen aitak edo amak: «Emen naiz ba, Joxe Mari! Bete zure bearrean! Afrika'n daukaten Euxebiori eskribituko bazenioke...» Edo bestela: «Orain ere zure bearrean naiz, Joxe Mari! Madrillen neskame daukaten alaba Maaleni ixkribituko bazenioke...»

Bertsotan asko gustatzen omen zitzaion, batez ere auzo-lanetan eta lagun-ar-

tean. Bere lagunik aundiena Atano Luzie zuan, Atano pelotarien aita. Oso gizon luzea edo altura aundikoa zan. Iru anai ziran auek; bost ziran, bañan iru nere aitaren lagunak.

Aagarren-goi'ko Erremon, Biorreta'ko Eislo —Bidaurreta'ko Estanislao— eta abar, askotan ibiltzen omen ziran Santa Ageda eskean, Balda anaiak dultzaiñakin eta nere aita atabalakin eta koplari zala. Eztakigu zer bertso izango ziran, bañan nolana ere ederrak izango ziran.

Bein batez, jai-illuntzen batean, Udarregi zana —Azkoiti'ra bertso tara etorrita izango zan itxura danez— Alameda tabernan omen zegoan, eta onen aldamenean Patxi Laja gaztea, au ere bertso kantatzen gustatzen zitzaiona; ta beronek ikusia eta esana da orain kontatu nai detana.

Atano anaiak jakin zutenean Udarregi Alameda'n zala, an sartu omen ziran saio bat egiteko asmoz, bañan ezin urreratu, eta laister etsi omen zuten, eta Udarregiri onela esan omen zion Atano Luziek:

—Berealaxen ekarriko dizugu gure lagun bat bertsolari ederra!

Erten omen zuten kalera ta andik las-

ter or omen datoz Atano anaiak nere aita zana erdian zutela. Nere aita, mutil altua, beltz-morenoa, bruxa motxa, txuri kuadroa barrutik eta aurreko aldean forro gorria, lepoan pañuelo txuria, abarketa txuriak, arpegia irriparrez, bere andregaiari lagunduta.

Udarregik ongi-etorria egin ondoren, asi omen ziran bertsoan, da, jakiña, naiz-ta Atano baño geiago izan, ezin urreratu, bañan Udarregik berak lagunduaz eta erreztasunak ipiñiaz, bertso-saio aundia egin omen zuten.

Jakiña, taberna dana jendez betea omen zegoan. Ango txaloak eta «Ori dek, Estra Beltxa!» Joxe Mari Estra'rekin ezagutzen zan, bañan tartean batzuek Beltxa, Estra Beltxa deitzen zioten.

Amaitu zutenean saio ura, Udarregik onako au esan omen zion:

—Badaukazu gaia edo materiala, bañan an bean, gure inguruan, ibilli bear dezu. Orduan goeneko mallara iritxiko ziñake!

Patxi Laja'k esan oi zuan au ere: Bein batez, bertsoak neska bateri atera zizkion, neskarekin ibillitako mutillak esanda. Bañan bai damutu ere egindako

okerra! Ala esan omen zion Patxi Laja'ri:

—Etzeiok atera iñori min emateko bertsorik! Nik bein atera nitxian, da egundokorik ondoena damututa natxiok!

Lau anai eta bi arreba ziran: Jose Inazio, Jose Mari, Pedro ta Erramon; eta arrebak: Josefa ta Manuela. Danak, Euskaljerri-maitale purrukatuak eta euskaltzale sutuak.

Manuela ta Pedro Madrid'en urte askoan bizi izan ziran. Manuela an il zan. Joxepa Mexico'n berrogei urte inguruan izan zan. Irurak euskeraz ondo egiten zuten. Iñoiz bateonbategaldetzen bazien ea nola etzitzaien euskeraz aztutzen, aien erantzuna au izaten omen zan:

—Geuk geure kasa egiten ditugun itzak eta pentsamentuak, danak euskeraz izaten dira!

Eta elizkoiak, zer esanik ez. Nere aita Burgos'en zegoala, Madrid'era aldatu omen zuten, eta Burgos'en lagun egindako batekin topo egin omen zuan, eta onek:

—Ta len bezela jarraitzen al diok eleizari, Lete?

Eta onek:

—Bai, motell, bai!

Orduan besteak:

—Nola leike?

Ta nere aitak:

—Nola leiken? Sinisten detalako!

Orain Azkoitia'n daukagun organoari bertsoak atera omen zizkion. Ta gaia edo egur billa baserriz baserri ibilli omen zan. Jakiña, apaiz da erretore danak lagun omen zituan-da...

Amaika aldiz esaten omen zion erretoreak, Aldalur'ek:

—Motell, motell! Ezkondu adi edo praille joan akit!

Ogei ta amalau edo amabost urterekin ezkondu omen zan. Madarixa'ko —Madariaga— Zabale'ko alaba batekin, Manuela Zubizarreta Arregi'rekin, ezkondu zan.

Iru seme ta alaba izan zituzten: Jose, aingerutan illa; Beatriz, orain bost urte illa; Jose Mari, Plazentzi'n bizi dana ta ni, Patxi.

Emen esandako gauza guziak bestek esanda ikasi ditut, nere ama nik bi urte

osatu gabe il zalako, ta nere aita, berriz,
andik urtebete baño len. (2)

Orregatik, nik ez aita ta ez ama ez ni-
tuan ezagutu, bañan, Jaunaren laguntzaz
zerura joaten naizenean, nere lenengo
galdeera au izango da: Zein dira emen
nere aita ta ama?

Franzisko Lete
«Patxi Estra»
Azkoitia

(2) Ama 1911/VIII/19'an il zan, pulmoniaz, 32
urterekin; ta aita 1912/V/10'an, "fiebre infecciosa"
gaitzarekin, 45 urterekin, Bizkargi-Torrea'n. (Azkoi-
tia'ko 10'garren eriotz-liburuan, 275 ta 300'garren
orri-aldeetan.)

(1887)

BERTSO BERRIAK
ESTRADAK BURGOS'EN JARRIAK
KINTUEN BIZITZARI

Lengo fuero zarren denboran euskaldunak soldaduzkatik libre ziran. Gerra zanean gizonen da abar gogo onez laguntzen zuten, bañan kuarteletara derrior joan bearrik etzuten. Fueroak galduta-koan asi zan kontu ori emen.

Orregatik, bertso auetan Estradak bere buruagatik diona, Euskalerra osoagatik esan genezake:


...soldaduzka zer zanik
asko ez nekian,
oraiñ asi da sartzen
nere memorian.

Ta beren etxe ta errietan orren berri ematearren, bertso jartzen asi ziran gure soldadu bertsolariak.

Oietako bat, Estrada izan zan. Gure eskuetaraño eldu diranetan beintzat, aren jarri-aldirik zarrena degu. Ta, uste degu-

nez, Estradak auek ditu bere bertso-rik zabalduenak.

Doña bere seme Patxik kantatu, magnetofonoz jaso, ta Manuel Yaben eta Ambrosio Zatarain jaunak paperean ezarria da.



- 1/ Bertso berri batzuek
bear ditut jarri,
nere lagun guztien
entretengarri;
inozente soldadu
ninduen ekarri,
iru urteko fetxa
dirate ezarri.

- 2/ Anparu-eske nator,
zeruko Erregiña,
Jesus onaren Ama,
Maria Birjiña;
zure laguntzaz egiñ
nai det alegiña
esplikaturzen gure
bizitza samiña.
- 3/ Bergara'n subertia
genduan tiratu:
batzuek katibu ta
bestiak libratu;
numero bajua zan
neretzat tokatu,
Burgos'ko artillerian
naute entregatu.
- 4/ Milla ta zortzireun da
laroi ta zazpian, (1)
Burgos'en allegatu
Maiatzaren bian;
soldadutza zer zanik
asko ez nekian,
oraiñ asi da sartzen
nere memorian.

(1) Bertso-paperean: *larogei*.

- 5/ Etxetik erten nuan
ustez baliente,
aurretikan jarria
guztiz korriente;
guraso triste askok
negar eiten dute, (2)
kinto ditxosozko au
dala mediante.
- 6/ Nere lagunak, jarri
zaitezte aditzen
soldadu etorrira
zer moduz gabiltzen:
alde guztietatik
beti padezitzen,
emen erakutsiko
digute bizitzen.
- 7/ Orain iru illabete
etxetikan erten,
geroztik emen nabill
patatia jaten;
Jaungoikuak osasuna
badigu ematen,
etorriko al gera
alakoren baten!

(2) Bertso-paperean: *egiten*.

- 8/ Esplikatuko ditut
nere notiziak:
osasuna daukagu
Jaunari graziak;
egunak eta gaubak
dijuaz luziak,
nolabait pasatuko
al dira guziak!
- 9/ Kuartelian sartuta
lenengo gabian
barrundikan ez geunden
sosegu onian;
ni ikaratu nintzan
beñepeñian,
orko *Dios*'ka otsa
entzun nuanian.
- 10/ Paraje onetara
giñanian sartu,
izen da apelliduak
zizkiguten artu;
gero mediku batek
errekonozitu:
ez gerade inutil,
ontzat eman gaitu.

11/ Kuarto baten sarturik
mediko ta guzi,
lendabiziko lana
erropak erantzi;
kontu kuriosuak
bear ziran ikusi,
jaio giñan bezela
or gaituzte utzi.

12/ Lan au zan etorri ta
biaramonian,
Maiatzaren lenengo
asteazkenian;
gure bildurra ala
jarri giñanian!
Poz gera onenbestez
libre geranian!

13/ Guri begiratu ta
atera kontuak,
emen listotzen dira
ederki tontuak;
ekartzen diran indar
edo talentuak,
bajatzen ditu gure
mantenimentuak.

14/ Diana jota lista,
ondoren sopia,
bera jan arte falta
sarritan pakia,
azkar ez dabillenari
traillazo golpia...
Auxen da miserable
bizi izatia!

15/ Bostetan lenbiziko
mularen pentsua,
animali-jenero
umill da mantsua;
gero bederatzietan
gure arrantxua:
patata, babazuri
eta garbantzua.

16/ Arrantxu onduan du
linpieza jotzen,
orduan kuadrara
gaituzte bajatzen;
egunoro onela
gerade jardutzen:
mularik ezpadegu,
zaldia garbitzen.

17/ Kintuaren bizitza
errukalgarria,
errebista daukagu
ikaragarria:
jaboia ta betuna,
jostorratz ta aria,
justu ez daduzkanak
istillu gorria.

18/ Mendean daukatena
jotzen dute pozik,
nai izan arren eziñ
kontestatu itzik;
billatzen badigute
zikiñaren antzik,
ez digute largatzen
bizkarreko otzik.

19/ Kulpa aundirik gabe
artutzen ditugu,
odolak meetutzeko
zerbait bear degu;
planta ederrekuak
jarriko gera gu,
urte asko onela
pasatzen badegu.

20/ Lapurretan jendea,
ari da ikasitzen,
bestien ejemploan
diogu segitzen;
era onian ezer
bada ikusitzen,
pekatu egiñ bildurrez
etzaio utzitzen.

21/ Gure bizi-moduaz
erruki zaitezte,
arro bagiñan ere
bajatu gaituzte;
igualtsu gabiltza
igande ta aste:
mingañez alegre ta
biotzetik triste.

22/ Gezur gabe jua zaigu
indarren erdia,
biotzian tristura,
kolore berdia,
gaiñera ikasten degu
zenbait pikardia...
Jesus, izazu gutzaz
miserikordia!

23/ Konsuelo edo pozik
ez daukagu emen,
Maria Santisima,
kupi zaitez arren;
paraje ontatik libra
gaitzatzu len-bait-len,
ala gerta dedilla,
biba Jesus, amen!

24/ Agur, nere senide,
aita eta ama,
pariente eta lagunak,
adios, erri dana;
nai nuke etortzia
noizbait zuengana,
au da Estrada gaztiak
deseo duana. (3)

(3) Bertso-papera, "Azpeitia Imp. de P. Martínez e hijo", Azpeitia'ko Fidel Uria apaiza zana.

Bertso-papera, "Tip. de D. de Diego. Eibar", Jose Aldalur, Ugarte baserria, Azkoitia. Aldaketak: 3/1: Donostia onetan; 3/2: suertiak tiratu; 3/5: neretzat numerua; 3/6: bajua tokatu; 4/2: larogei ta ama-seiyan; 5/1: urten; 7/2: urten; 9/3: barrutikan ez neuen; 16/5: egunero; 17/2: da penagarria; 20/3: bestien ejenpluari; 23/5: ortatik.

Onek bost bertso falta ditu: 12, 13, 19, 22 ta 24'garrena.

Ta bestiak ez dituan bi bertso dakarzki:

Iñundik errentarik
ez da guretzako,
emendik paga txikik
sokorritutzeko;
etxera abisatzen det
piskat bialtzeko,
an ere borondate
gutxi neretzako.

Diruaren eskia
nik abisatuta,
ama asarratzen da,
aita zapuztuta;
ala esaten dute
biak juntatuta:
“Lenago asko utzi
al zun sobratuta?”

Agian ez da bertso-pare au Estradarena izango,
norbaitek sallari erantsia baizik.

Azkue: “Cancionero Vasco”, 661'garrenean, lau-
garren bertsoa dakar. Aldaketak: 4/2: larogei ta
bian; 4/5: soldadua zer zanik.

Eskuz idatzita ere jaso izan ditut bertso auek, ba-
ñan aldaketa nabarmenik gabe.

* * *

Estradak ba omen zuan beste jarri-aldi bat ere
Burgos'tik onera bialdua. Bañan ez degu bertso-pus-
ka au besterik jaso al izan:

Benta-ostekua, Narbaizakua,
Labiakua Juakiña,
Santa Isabelez beorra sartzen
iru atso alajaña.

KASERO'KO TXERRIA

Bertso auek Jose Mari Estra'k ateriak eta Etkezaga'ko Jose Mari aitonak aren seme Patxiri emanak dira.

Arangoiti baserrian arto zuritzen ari zirala atera omen zituan.

Garai artan, Atano baserriko auzoan aitona bat bizi omen zan, kapela edo sonbrero beltza jantzita ibiltzen zana, eta orregatik ez-izenez *Kapillaua* deitzen ziotena; eta Kasero baserrian, berriz, bi anai ziran, ez-izena *Xarra* ta *Mirua* zutenak.

- 1/ Kontu polita pasa da
Kasero'ko etxian:
txarriaren ondoren
kamixe utsian,
gaberdi ondotxuan
Antigua atzian;
enemiguak ere
urruti etzian:
Kapillaua'k artu du
kapela beltzian.

- 2/ Orain amabi egun
egin zana jaxo,
urdaiak mejorie
majo egin dixo;
atetik irten eta
igasi erixo,
Kapillaua'k ankatik
eldu ezpalixo,
txerririkan etzuten
ikusiko geixo.
- 3/ Orrek izan bear du
azienda ona,
beintzat urrutixora
zabaldu du sona;
ez dute edukiko
ekarrixe pena;
etxian iltzen badute
aurten ori dana,
Xarra'k eta *Mirua*'k
a ze urdai-jana!
- 4/ Len txikixe zan baña
ôin egin da kerten,
eztu geixago ate-
-zulotikan irten;
iñolaz ere ondo
emate'ixo jaten;
ilko dute oraindik
alakoren baten,
erregalo onen bat
bazeukeau aurten!

5/ *Xarra*'k berak esana
egixe klarue:
errotara jua eta
trukatu zorrue;
egunien imeixe
daukala errue,
iltzerakuen orrek
eingo dik orrue,
etzetik pixatuko
amasei arrue.

(1892)

BERTSO BERRIAK
ESTRADAK JARRIAK

(PASIO SANTUA)

Sail ontan Jesukristoren Pasio Santua kontatzen zaigu, ogei ta amabi bertsoan. Egillea nor dan azkenekoan esaten da: «Estradak ori deseaten du...»

Bertso auek kanta-paperetan zabaldu ziran, «Eibar. — *Imp. de Pedro Orue*»-n inprentatuta. Paper oietako bat Alsasua'n jaso genduan, Kontxa Mendiluze'ren eskutik.

- 1/ Milla zortzireun larogei eta amabigarrena aurten,
asi bear det Jesus maiteak
zer pasa zuan esaten;
liburutikan leturik daukat
Garizumako jai baten
lendabiziko tormentatuta
gero zer moduz ill zuten.

2/ Jesu-Kristoren eriotza ta
bere Pasio Santua,
al baldin banu, kantuz jartzeko
artu det pentsamentua;
biar bezela eramateko
lanbide onen kontua,
Zeruko Aita, argi zadazu
nere entendimentua.

3/ Jaun Jesu-Kristo bizi izan zan
ogei ta amairu urtian:
ogei ta amar bere ama eta
San Joserekin batian,
beste iruan predikatutzen
pekatari on artian,
gurutze baten bere bizia
eman zuan bitartian.

4/ Ostegun Santu gautik aurrera
jarri gaitean pentsatzen,
bere amabi ikasliakin
Jesus jarri zan afaltzen;
aitzera emanaz aren azkena
zeturrela urreratzen,
ontzia urez beteta asi zan
gaztai onak garbitzen.

5/ Afal onduan iru apostolu,
Pedro, Juan, Diego arturik,
orazioan jarri zan Jesus
baratza baten sarturik;
zeguan lurra bustitzeraño
odol-izardiz urturik,
ala ere Aitaren borondatian
jarri zan konformaturik.

6/ Ostegun santu afal onduan
Jetsemani'ko baratzan
Judasek ondo zekian Jesus
orazioan nola zan;
illun zan eta zuzi-argitan
etsaiarekin sartu zan,
«Agur, Maisua» esanda bertan
Jauna laztantzen asi zan.

7/ «Laztan batekin saltzen al nazu?
—galdetzen dio Judasi—.
Neregandikan etzenduan zuk
orrelakorik ikasi.»
Etsai gaiztuak itsumustuan
eltzen diote Jesusi,
lotutzen dute, lapur bat balitz
bezela, esku ta guzi.

8/ Judasek aurrez zeuzkan Jesusen
etsai gaiztuak esanak,
laztanten zuan ura zala eta
len-bait-len eltzeko danak;
ogei ta amar dirugatikan
gizonarentzat zer lanak!
Gu ere zenbat ote gerade
orla portatzen geranak!

9/ Soldaduz ondo inguraturik
alde guztietatikan,
badaramate Jesus loturik
baratza orretatikan;
Jaungoikuaren Seme bakarra
bera izanagatikan,
gurutze baten josi ta ill nai du
gu ez galtziagatikan.

10/ Jetsemani'tik Jerusalem'a
jentea abiatu zan;
Jesus lotuta ikusitzian
Kaifas biziro poztu zan,
laister illtzeko aitzaki billa
berealatik ari zan;
gaua deskantsuz pasatutzeko
esku onetan jarri zan!

11/ Galde batzuek egiñ ondoren
sententziatzen asirik,
erretiratu ziraden Jesus
soldaduakin utzirik;
momentu baten etzuan izan
deskansatzeko astirik,
gau ura nola pasako zuan
ez da pensatu besterik.

12/ Tribunalera bildu ziraden
ostiral santu goizian,
aguro asko juzgatu zuten
deklarazio artzian;
sententzia ori erabagitzen
luzaro egon etzian,
danak batian otsegiñ zuten:
«Ill dedilla gurutzian!»

13/ Badaramate Jesus maitea
andik Pilatosengana,
ia ark ontzat ematen zuan
egin bear zuten lana;
ezaguturik justua edo
kulparik gabia zana,
saiatutzen zan libratutzeko
baiñan alferrik zan dana.

- 14/ Agindutzen du azotatzeko
agertzeraño ezurak,
ia onela biguntzen ziran
Juduen biotz gogorak;
aditu beziñ azkar ezarri
ziozkaten atzaparrak;
pensatu zenbait sufritu zuan
Jaunaren Seme bakarrak!
- 15/ Krueldadezko golpiarekin
asten dira azotatzen,
gorputz sagradu mantxa gabia
ezur da mami puskatzen;
ala ere etzan aren aotik
suspirio bat aditzen,
gure amorez pozik egon zan
martirio au sufritzen.
- 16/ Arantzazkua koroï portitz bat
jarri zioten buruan,
mantu gorrizko soñeko zarra,
kaiñabera bat eskuan;
egin ziozkaten zaurietatik
odol-ustutzen zeguan;
eziñ juzgatu gugatik zenbat
sufritu zuan munduan.

17/ Pilato berriz leiatutzen zan
libre uzteko Jesusi,
etsai gaiztuak deadar utsian
gogorrago ziran asi;
danak batian esaten zuten
iskanbilla ta garrazi:
«Gurutze baten bere bizia
kendutzia du merezi!»

18/ Au aditurik Pilatok bere
sententzia ematen du:
ill zedilla, ta juduetara
Jesus entregatutzen du;
instante artako desditxa ura
zeiñek konsideratzen du?
Biotza arri edukita ere
bada zerekiñ bigundu!

19/ Preparatzen da Kalbariora
juateko Jesus maitia,
modu orretan kunplitu zezan
Aitaren borondatia;
konbeniko zan bere bizia
gugatikan ematia,
bestela nola idigiko zan
zeruetako atia?

20/ Gurutze aundi bat eman zioten
gutziz ikaragarria,
bost kana luze ta iru zabal
artu zioten neurria;
onen azpian abiatu zan
zeru ta lurren jabia,
gure anima zenbat kosta zan
pensatu, pekataria!

21/ Jaiki ta erori allegatzen da
Kalbario'ko mendira,
gurutze artan Jesus jositzen
berealara asten dira;
bere biotza erdiraturik
Ama zeguan begira;
ango tristeza illuntasuna,
pena guztiak an dira!

22/ Eguerdiko amabietan
josi zuten gurutzian,
estadu triste penoso artan
iru ordu jua zian;
bitarte orretan gutziz milagro
aundiak izandu zian
Jesus onaren neke ta penak
onela bukatu zian.

23/ Gorputz santua eratxi eta
ugentuz balsamaturik,
obiratzeko prestatu zuten
mandire baten baturik;
andik gertuan sepultura bat
guztiz ederra auturik,
nun gelditu zan Jangoikuaren
Semea enterraturik.

24/ Jesus biztu zan illen artetik
irugarren egunian,
zerura igo zan etsai guztiak
garaitu zituenian;
eseririkan an dago bere
Aitaren aldamenian,
bizi ta illak juzgatutzeko
munduaren azkenian.

25/ Egun triste ura badatorkigu,
kristauak, urreratutzen,
bear ainbat aldiz ez degu askok
ori konsideratutzen;
obra onetan atzera guaz,
gaitzean aurreratutzen,
gastigu latzak guretzat datoz
ezpagera mudatutzen.

- 26/ Gure Jesusek bide onera
laister mudatu gaitzala,
premian asko arkitzen gera,
nerau aurrena naizala;
eriotzia bidean dator
gauza azkar bat bezela,
prestaturikan egon gaitean,
galduko gera bestela.
- 27/ Berealatik egin dezagun
geroko dilijentzia,
bear bezela garbiturikan
nork bere kontzientzia,
mundu ontako neke-penetan
arturik pazientzia,
gero zeruan goza dezagun
eternidade guzia.
- 28/ Konsejadore onak dauzkagu,
segi daiegun oieri,
beti prest daude lagundutzeko
premian daganari;
konfesiotik saiatzen dira,
sermoi ederrak ugari,
juzgatu ere ezin leike
zenbat nai diguten guri.

29/ Don Pedro Aldalur jauna da gure
sazerdote nagusia,
pulpitotikan nola itzegiñ
gutziz ondo ikasia;
gure animak salbatutzeko
dauka deseo guzia,
izan dezala urte askuan
predikatzeko grazia.

30/ Jaun prestu auen intentziua
izanikan orren fiña,
badala uste det, nere kristauak,
zerbait pentsatzeko aiña;
gau eta egun guri laguntzen
eiten dute alegiña,
oien faltarik ezta arkitzen
geu saiatuko bagiña.

31/ Ebaren ume desterratuak
gaure paraje galduan,
griña gaiztuai leku emanik
asko gabilta munduan;
Maria Santa, jarri nai degu
danok zure anparuan,
gorde gaitzatzu oraiñ da gure
eriotzako orduan.

32/ Jesus maitea, eskatzen dizut
grazia errematian:
zeure eskutik, arren, ez utzi
munduan geran artian,
ill beziñ laster sartu gaitzen
zeruetako atian;
Estradak ori deseatzten du
beste danakiñ batian.

(1898)

ORGANO BERRIARI

Itzaurrean onela esan digu Estradaren semeak bere aita zanarengatik: «Orain Azkoitia'n daukagun organoari bertsoak atera omen zizkion.»

Organo ori 1898 urteko Otsaillaren 10'n estrañatu zan. Orduan azkoitiarrak jarritako bertso batzuk arkitu ditugu (1). Estradarenak ote dira? Agian bai, agian ez. Orregatik, duda-antzean bada ere, emen jartzea erabaki degu:

*Bedeinkatua zure sorrera,
zorioneko eguna,
gure organo berri ederra
pozik aditzen deguna.*

(1) Juan Gorostidi: "Impresiones" itzaldia. "Azkoitia, Conferencias Culturales, Año 1950", Itxaropena, Zarauz, 1951, 132 orri-aldean.

1/ Miragarrizko gertaera bat
izan-ala pozgarria
ikusten degu argiro zugaran,
o Azkoiti'ko erria!
Lendabiziko gaur jo ta aditzen
dezun organo berria,
da zure fede eta birtute
guziz aundien neurria.

Bedeinkatua...

2/ Don Aristides Cavalle'Coll jaun
bere lanian bikaña,
organu au da gizon ospatsu
onek Paris'en egiña;
onenbestekin esana dago
gauza osoro jakiña:
izango dala katedral aundi
batian jartzeko diña.

Bedeinkatua...

3/ Teklau, pedal ta errejistroak
izanik osoak, danak
esleitu dira konsultaturik
maisurik onen diranak;
zenbat meritu duan organo
onetan egin dan lanak,
bakarrik esan lezake, ondo
ezagututzen duanak. (2)

Bedeinkatua...

4/ Eliz, fabrika eta Erriak,
lagun egiñaz alkarri,
jendiarekin batian dute
bear dan dirua jarri;
danon artian, bada, dezute
organu ori ekarri,
izango dana eliza eta
erriaren onragarri.

Bedeinkatua...

(2) Itxaropena'k argitaratutakoan *ezagutzen* jar-
tzen du.

5/ Teklauak iru eskuentzako,
pedalak berriz oñetan,
erregistroak berrogeiraño
dira organu onetan;
tronpetak ezin ederraguak
kanpo, barru ta goietan,
zeruko boza aditzen dala
diruri soñu oietan.

Bedeinkatua...

6/ Azkoitiarrak, gaurtik beti
biziko zerate pozak,
aditutzian organu ortan
gizon ta aingeruen bozak;
bada ain dira atsegin eta
ederrak beraren otsak,
nun txit gozoro igoko diran
zerura zuen biotzak.

Bedeinkatua...

(1908)

AZKOITI'KO MARIAREN ALABAI
ITZIARRERA EGIN ZUTEN
ERROMERI ZORAGARRIAREN
OROIPENIAN

1908'garren urteko Garagarrillaren 9'an, Azkoiti'ko Mariaren alabak Itziarr'era peleginazioa egin zuten. Bosteun bat neskatxa joan omen ziran, batzuek kotxian eta geienak oñez, Itzarraitz mendiaren barrena.

Izenburuak esaten duanez, bertso auek erromeri orren oroipenean jarri ziran. Estradaren izena azkenengo bertsoan ageri da.

Lenengo bertsoan, berriz, bertsoak len mutillentzat paratu zirala ta orain neskatxentzako jartzen dirala esaten da. Mutillentzako bertso oiek badakigu zein diran: Azkoiti'ko mutillak 1884'garrenean

Itziarr'era egin zuten ibillaldia; 1886'garrenean Arantzazu'ra; ta urrena Lezo'ra. Iru jarri-aldi oiek Jose Mari Atano'koak jarri zituan, Atano bertsolarien osabak ain zuzen. Bertso-sail oiek liburu ontan bertan arki ditzazke irakurleak.

Itziarr'era joan ziranetako neskaxa oietako batek, Estrada'ren papera etxean gorde zuan. Juana Azpiazu zeritzan, eta, urrutitik bada ere, Estrada'koekin familiarikoa egiten zana zan. Orain amar bat urte, Estradaren seme Patxi bere aita zana-ren bertsoen billa asia zala jakiñik, bere gaztetako paper ori txokotik atera ta eman zion. Orrela eldu da gure eskuetaraño bertso-sail au. Juana Azpiazu orain lau bat urte il zan, larogei bat urterekin.

- 1/ Gizon onradu batek esan dit bertso berriak jartzeko, guztiz gai ona dagoala ta arren aprobeztatzeko; len mutillentzat para zituzten, orain nik neskaxentzako, irabazia daukaten onra munduari agertzeko.

2/ Milla bederatzireun da zortzi
urte aurtengo onekin,
erromeri bat egiñ deguna
Mariaren alabakin,
biotzak fedez irazekirik
debozio onarekin;
jente guztia gustatua da
oien biaje orrekin.

3/ Aspaldi ontan beti esaten
beñere ez nintzan ixiltzen,
Birjiña Amaren alabarikan
etzala iñora mugitzen;
baña usterik gutxienean
orra nun dedan aditzen
asi dirala irteera eder bat
egiteko prebenitzen.

4/ Irteera eder au nora izango
eta zan Itziarr'era
bosteunen baten kontaduriya
bazan gutxi gora-bera;
Ama Birjiña tronutzat autu
zuan toki ederrera,
biotz ta animak eskeñi nairik,
dijoaz bere aurrera.

5/ Garagar-illak beratzigarren
eguna zuan goizian,
Meza entzunda komulgaturik
Azkoiti'tik irten zian, (1)
geienak oñez menditik eta
besteak berriz kotxian,
illuntzera arte agur egiñik
bakoitzak bere etxian.

6/ Esan bezela, kotxez ta oñez
atera ziran erritik,
oso animo aundiarekin
urruti egonagatik;
ni ere zerbait ikusi naian
irtena nintzan menditik,
geroztik egun txit alai ura
ezin kendu det burutik.

7/ Bi aldetatik abiatuak
bildu dira Itziarr'en,
pauoa franko emanda baña
alare bizkorrak zeuden;
prozesioa prestatu edo
zuzentzen asi ziraden,
bazuten zeñek lagundu ere
erbestean izan arren.

(1) Bertso-paperean: *ziran*.

8/ Erri artako kristau leialak
egin zutena lenbizi:
kanpaiak jota bidera irten
beren musika ta guzi;
eleiz aldera abiatzeko
martxa eder bat zan asi,
asko sarrera ederragorik
oraindik ez det ikusi.

9/ Erri barruan zegoan berriz
gauza txit gustagarria:
arku eder bat bere letrakiñ
altxaturikan jarria,
nun agiri zan amoriozko
euren ongi-etorria;
bere noblezaz paregabea
da Itziar'ko erria.

10/ Elizan sartu eta auzpezten
zaizka Birjiña Amari,
errespetorik aundienakiñ
begiratuaz berari;
erreparatu dio jendeak
oien umilltasunari,
esanaz: «Auen debozioak
benetakoa diruri».

11/ Allegatzean itzegin zigun
bertako parroko jaunak,
len ere iñoiz ongi-etorri
pozikan egin digunak;
goratu ditu kongregante ta
oiekin diran lagunak;
kristauarentzat zer pozgarriak
diran alako egunak!

12/ Ama Birjiña onratu dute
bakoitzak bere partetik,
nola mingañez ala biotzez
kantatu berriz gogotik;
zer esango det amarretan zan
meza nagusi argatik?
Jendea ondo ensaiatua
joan zala gure erritik.

13/ Meza kantatzen, asi ta akabo,
dana emakume utsa,
geiagok ere esan du eta
ez dira gizonen lotsa,
zirudiela zeruetako
aingeruen kantu-otsa,
zeñak pozaren aunditasunez
saltatzen zuan biotza.

14/ On Jose Kruz zan meza santua
eman edo zelebratzen,
On Eusebio ta On Domingo
aldamenetik laguntzen,
On Jose Otaño txutik jarrita
kantari danak zuzentzen,
On Joakin berriz an ageri zan
pozaren pozez zoratzzen.

15/ Ebanjelio santuko itzak
ziradenean bukatu,
gure erritar On Jose Egin
pulpituan zan agertu;
nork esan ura an ikustean
zer poza genduan artu?
Sermoi luzea omen zan baña
ez giñan iñor aspertu.

16/ Funtzio ori bukatutzean
irten giñan bazkaltzera,
berriz bertara inguratzeko
gero kanpaien otsera,
errosario santua esan da
sermoi eder bat aitzera,
Birjiña Amari agur egiñik
abiatzeko etxera.

- 17/ Arratsaldean gure parroko
maiteak zuen itz-gaia:
garbitasuna dala lore bat
ederrez paregabia,
urre, zillar da diamanteak
danak baño're obia;
neskatxatxoak, gogoan izan
orren orduko sermoia.
- 18/ Kantatutzean «Agur, Itziar,
izar Birjiña Maria»,
aditzen geunden guztientzako
gauza atsegingarria;
an zan edozein egon lezake
sinisturikan jarria
egun orrekin ez dala aztuko
Ama txit maitagarria.
- 19/ Bendizioa artu ondoren
Birjiña Mariagandik,
itziartarrak lagun egiñaz
abiatu giñan andik;
geroztikan maiz esan det baña
esan bear det oraindik:
etorrera bat ederragorik
ez dala izan iñundik.

- 20/ Obligazio asko diogu
Itziar'ko erriari,
nola apaiz jaun, igual beste
jende maitagarriari;
bear bezela ezin erantzun
oien borondateari,
egin dituzten laguntzazkatik
eskerrak milla danari.
- 21/ Itziar'tikan Azkoiti'raño
dago mendi-saill luzia,
baña patxera ederrarekin
igaro zuten guzia;
gero erriko sarrera ere
ez omen zan itxusia,
entzun dedanez lengo guztiak
azpiraturik utzia.
- 22/ Erritik irten zuten bidera
kristau askok elkarrekin,
Birjiña Amaren sortze garbiko
imajiña ederrarekin;
neskatxak berriz prestaturikan
kandela argi banarekin,
Urrategi'ko martxa alaia
kantatzen zioten ekin.

- 23/ Musika lagun zala kantari
sartu ziraden eleizan,
Birjiña Amak bere alabak
berriro bedeinka zitzan;
jende guztia txoro egiñik
esaten bertan asi zan
gure errian orrelakorik
lenago ez dala izan.
- 24/ Parroko jaunak eginda zuten
itzalditxo bat aditu,
zorieko erromeri au
onela zan despeditu;
aren ordenak bakoitzak zuzen
kunplitzen baldin baditu,
Ama Birjiñak oien pausuak
ondo sarituko ditu.
- 25/ Erromeria orren gidari
izan ziran apaiz jaunak,
paper onetan bertan lenago
izendatu ditut danak;
dirade ondo erantzutea
merezi duten gizonak,
danen partetik ematen diztet
esker ugari ta onak.

26/ Birjiña Amaren alabatxoak,
orain entzun ezazute,
merezi aña ez famatua
arren barka zadazute;
onak izanda betiko ditxa
alkantzatuko dezute,
biotz guztitik Estradak ori
deseatutzen dizute. (2)

(2) Bertso-papera: "AZPEITIYAN — Martinez
tarren moldiztegiyan."

(1908)

ZUMARRAGA'KO KARLISTE
FESTAREN OROIPENEAN

AZKOITI'KO KARLISTE ETXEKO
BATEK EGIN DITUAN
BIURTZAK

1908'garren urteko Santiago-egunean biltzar aundi bat egin zuten karlistak Zumarraga'n. Orren oroipengarri bertso auk jarri zituan Estrada'k.

Bertso-paperetan zabaldu ziran, «*Beasañen. — Ezkiaga'ren moldiztegian*» inprentatuta. Paper oietako bat Estrada'ren seme Patxik eman zigun, baita egi-
llea nor zan esan ere. Ori ez baita pape-
rean esaten, argibide estimagarria noski.

Doñua, Patxi orrek berak kantatu ta Donostia'ko Anbrosio Zatarain ta Manuel Yaben'ek magnetofonotik entzun eta paperean ezarria da.



1/ Milla bederatzireun eta
zortzigarrena urtea, (1)
Uzta-illaren ogei ta bosta
guretzat pozez betea,
nai nukeana itz neurtuetan
bere berri ematea,
orretarako zure laguntza
indazu, Jesus maitea.

(1) Bertso-paperean: *zortzigarren*. Bañan Estradaren semeak *zortzigarrena* kantatzen du, ta ala jarri degu.

2/ España'ko patroi txit aundi (2)
Santiagoren eguna,
Zumarraga'ko erri maitean
karlistak egin deguna,
iñola ere geroztik ezin
burutik kendu deguna,
ta ezaguera degun artean
aztuko ere etzaiguna.

3/ Lau probintzietako karlistak
izan gera elkarrekin,
Gipuzkoar ta Arabakoak,
Bizkaitarrak Naparrakin;
gañera zenbait tokietako
Jaungoikoak berak jakin,
azaldu gera uste baño ere
laguntza geiagorekin.

4/ Elkarren leian inguratuba
uraxen zan jende-pilla (3)
Eleiz santua defendituaz
lengo Fuero zarren billa!
Ondo dakigu izan gerala
gutxienaz ogei milla,
oraindik karlistak bizi dirala
munduan jakin dedilla.

(2) Bertso-paperean: *Españiko*.

(3) Bertso-paperak: *uraxen jende-pilla*.

5/ Ainbeste milla gizon juan giñan
danok anaien antzera,
ots aundiko jaun prestu aien
itzaldiak aditzera,
borondate txit aundiarekin
beren aginduak artzera,
eta gu nola geran lengoak
munduari agertzera.

6/ Aspaldian maiz aditu degu
gure etsai askogandik
karlist-arraza osoro ilda
lurpera zala emendik;
baña nik diot bizi dala ta
ugaritutzen oraindik,
iñoiz baño itxura obeak
agertzen dira gugandik.

7/ Berrogei t'amar bandera baño
geiago ziraden bildu,
zer edertasun an izango zan
orain ortikan pensatu;
alderdi danak bete-betiak,
musika jo ta kantatu;
geroztik gure familietan
izan degu zer kontatu.

- 8/ Inguratzean bandera aiek
arkitzen ziran tokira,
askoren biotz epel zeudenak
fedez txit berotu dira;
ikusten ezin asperturikan,
egiñak ugari dira,
zeñek sinistu On Jaime bera
an zegoala begira?
- 9/ Gizon urtetan aurreratuak
lengo gerran ibilliak,
Kristoren alde zelai-mendietan
ezpata erabilliak;
orduan asko ikusi ziran,
ziruditela anaiak,
besarkaturik alkar laztantzen
malkoz beterik begiak.
- 10/ Egun orretan iztun ederrak
etorri ziran gugana,
bat ordea guziz abilla:
On Juan Vázquez Mella jauna,
katolikoak geran guztiok
maitatu bear deguna;
bedeinkatua ori jaio zan
zorioneko eguna!

- 11/ Gustagarria da gizon orren
itzegiteko doaia,
berari entzun dioten danak (3)
arriturikan dauzkana; (4)
nere mingañoak ezin goratu
merezi duan guziya,
opa dizkiot osasuna ta
urte askoko biziya.
- 12/ Jaun prestu oiek norbere txandan
garbiro zuten itzezin,
erakutsiaz religioa
defenditzeko zer egin;
aurrera bada, karlista onak,
biotz fedez betiakin,
gure bandera eder ori bein
betiko zabaldu dedin!
- 13/ Badakizute nola dabiltzan
amorruez gure etsaiak,
gugatik gaizki itzezin eta
kantatzen kantu lasaiak;
ez ditu nunbait ondo artutzen
karlostarraren usaiak, (5)
piska bat kargu ez egiteko
non dira oien artzaiak?

(3) Bertso-paperak *dioten danak* falta du; Azkoi-
tia'ko Floreaga'ko Julian Baztarrika'k osatu du, be-
rak ola ikasi zuala esanaz.

(4) Dударик gabe, Estradak etzuan puntu au orre-
la jarriko.

(5) Bertso-paperean: *karlostarren*.

14/ Ojuka daude gu geradela
euskeraren iltzalleak,
eta emengo lege zar edo
Fueruen ondatzalleak;
ori esaten dutenak dira
pakearen galtzalleak, (6)
erri guziak nasten dabiltzan
bazar-naspillatzalleak.

15/ Eta gañera gure partidu
onek dadukan jefea,
gezurti oiek dioten baño
da askoz gizon ohea;
bizi dalako defendituaz
Jesukristoren legea,
nai degu Karlos izan dedilla
España'ko erregea.

16/ Bada gabilta Jaungoikoaren
eta lege zarren alde,
betoz fueroak bañan español
izatia utzi gabe;
Karlos ikusi nai ez dutenak
zartzat badaukate ere,
kausa oriek defenditzeko
zein da bera bañon obe?

(6) Bertso-paperean: *gailtzalleak*.

17/ Ekin gogotik deadar: Gora
Jaun Jesukristo aurrena!
Gora Birjiña sortzez garbiya!
Gora Pio amargarrena!
Gora sorterri maitagarria
ta lege zarrak urrena!
Baita ere esan dezagun: Gora
On Karlos zazpigarrena!

18/ Uzta-illaren ogei ta bosta
ez aztu, euskal erriak,
batez ere gogoan izan
karlostar maitagarriak;
orra egun orren oroipenean
euskeraz bertso berriak,
ill arte ala iraun nai duan
karlista batek jarriak.

AMA BIRJIÑA URRATEGI'KOARI

Bertso auek ere Estrada'k jarriak dira. Ala esan digu bere seme Patxik, Azkoiti'ko aiton-amonen aotik jasoaukanez. Argitaraldi bat baño geiago izan dute, bertsoen atzetik adieraziko degunez.

Doñuak ere atzean jarri ditugu. Azkoitia'ko Trino Uria jaunak eman dizkigu, ta Ambrosio Zatarain jaunak idatzi.

«Fedez irazekirik...», Santiago Azpiazu'rena da; «Guri begira...», Esteban Etxaniz'ena; «Agur biotzez...», Juan Maria Etxaniz'ena. Ta «Bendizioz beterik...», «Fedez irazekirik...» bezela kantatzen da.

*Fedez irazekirik
goazen erri dana
Urrategi'ko Ama
Birjiñarengana.*

1/ Antxen dago itxedoten
danon Erregiña,
sortzez txit garbia dan
Maria Birjiña;
Ama errukitsua,
gozo ta biguña,
bera da gure poza
eta atsegiña.

2/ Guretzako dadukan
erruki biziak,
jartzen gaitu beraren
amorez josiak;
goazen, bada, bertatik
al degun guziak,
eskatutzera bear
ditugun graziak.

3/ Pekatarien Ama
Birjiña Mariak
guregana itzuli
ditzala begiak,
baita aditu ere
gure eskariak,
alkantzatu ditzagun
grazi ugariak.

ZORTZIKOA

- 1/ Guri begira errukiz zauden,
Ama txit maitagarria,
zure aurrean aurkeztutzen da
gaur Azkoiti'ko erria,
bere premiak agertutzeko
auspezturikan jarria,
zu zeralako pekatarien
bitarteko pozgarria.

- 2/ Ama maitea, gatoz gaur zure
bedeinkazioa artzera,
gure biotzak eta animak
bertatikan eskeintzera,
pekaturako ditugun griñak
beñ betiko largatzera;
zugana oso entregatuak
joan nai genduke atzera.

- 3/ Zu zera jardiñ edo baratza
paretaz ondo gordia,
zu zerade goiz-aldeko izar
diztiatzalle argia,
sortu ziñaden une artatik
mantxa gabe edo garbia;
arren izazu oraiñ da beti
gutzaz miserikordia!

4/ Gaurtikan, bada, jarri nai degu,
Ama, zure anparuan,
zuzen jarraitzen dizugarik
seme leialen moduan;
gorde gaitzatu orain da gure
eriotzako orduan,
zu alabatzen izan gaitezen
gero guztiok zeruan.

AZKEN AGURRA

Agur biotzez egiten dizu,
Ama, gaur gure erriak,
agur biotzez azkoitiarren
amore bizi-biziak;
agur maite onek mugi zaitzala
guri irixteko graziak,
gure animak bear dituzten
mesede guzi-guziak.

ETORRERAN

*Bendezioz beterik
Birjiña Amagandik,
bizi alaituak
gatoz danok andik.*

1/ Orain apartatzeak
gure Amarekin,
orretzek biotzean
ematen digu min;
baña dio ez dala
aztuko gurekin,
gu ondo portatutzen
bagera berekin.

2/ Ez degu aztu bear
guk ere argana,
izan debozioa
Birjiña Amagana;
fede bizi batekin
saiatu al dana,
gero eraman gaitzan
danok beragana.

3/ Peligro askorekin
bizi gera emen,
Ama, zugandik utzi
ez gaitzatzu, arren!
Eraman, bai, zerura,
eraman lenbailen,
zerorren konpañian
bizitzera, amen! (1)

(1) Bertso auen argitaraldirik zaarrena, ortogra-

fiak garbi asko salatzen duanez, “*Azpeitia Imp. de P.M.*” moldiztegia inprentatua dagoan kanta-paper bat da. Estradaren seme Patxik Lardaskanda baserriaren arkitu zuan. Paper oni kopiatu diogu.

Bigarrena, gure iritzirako, “*Azpeitia Imp. Católica de P. Martínez é hijo.*” moldiztegia dago, ta Estradaren seme Patxik eskuratu zuan au ere, Azkoitia'n.

Izenburua onela du: “*Ama Birjiña Begoña-koari*”. Azkoitiarrak-edo peleginazioren bat egingo zuten Begoña'ra. 1907'garren katoliko-biltzar aundi bat egin zan Bilbao'n, edo, obeki esateko, Bilbao'tik Begoña'ra. Agian ordukoa izango da kanta-paper au.

Gero aldaketa bakarra dauka: estribilloan, lenda-biziko paperak *Urrategi'ko Ama* jartzen duan tokian, onek *Begoña'ko Ama* dio, neurrian motx gelditzen dalarik.

Irugarren argitaraldiak izenburua onela du: *Azkoitiarrak Urrategi'ko Amari 1617 Irugarren eunurte buruan 1917*. Estrada il da gerokoa da, beraz. Beste aldaketarik ez du. Estradaren bertsoen atzetik, latinez *Magnificat* eta *Te Deum* dakarzki, baita ere euskerazko beste bi bertso, iñola ere Estradarenak ez diranak. Paper onek ez du esaten moldiztegiaren izena. Azkoiti'ko Ugarte baserriko Jose Aldalur'en eskutik jaso genduan.

"FEDEZ IRAZEKIRIK..."

Fe-dez i-ra-ze-ki-rik goa-zen e-rrí da -
 -nā U-rra-te-gi-ko A-ma Bir-ji-ñā-ren-ga-
 -na Fe-dez i-ra-ze-ki-rik goa-zen e-rrí da-na
 U-rra-te-gi-ko A-ma Bir-ji-ñā-ren-ga-na
 Fe-dez i-ra-ze-ki-rik goa-zen e-rrí da-na U-
 -rra-te-gi-ko A-ma Bir-ji-ñā-ren-ga-na Bir-ji-ñā-
 -ren-ga-na Bir-ji-ñā-ren-ga-na An-txen
 da-go l-txe-do-ten da-non E-rré-gi-ñā scr-tzez

txit gar-bi-a dan Ma-ri-a Bir-ji-ñā An-ñā
 A-mā e-rru-ki-tsu-a go-ro ta bi-gu-ñā
 Be-ra da gu-re-po-ro e-ta a-tse-gi-ñā
 ñā Be-ra da gu-re-po-ra e-ta a-tse-
 gi-ñā.

"GURI BEGIRA..."

Gu-ri be-gi- ra e-rru-kiz zau-den A-
 -matxit mai-ta-ga-rrri-a zu-re au-rre-an aur-kes-tu-
 -tzen da gaurr Az-koi-ti-ko e-rrri-a. Gu-ri be-
 za Be-re pre-mi-ak a-ger-tu-tze-ko aus-pe-z-tu-
 -ri- kan jo-rrri-a Zu ze-ra-la-ko pe-ka-ta-
 -ri- z en bi-tar-te-ko poz-ga-rrri-a Be-re pre-

-3

"AGUR BIOTZEZ..."

A-gur bi-o-tzeze-gi-tendi-zu zu-re A-

-ma-ren e-rr-i-ak a-gur bi-o-tzeze-az-koi-ti-a-rren

a-mo-re bi-zi-bi-zi-ak A-gurr a-gurr a-gurr a-


-gurr zu-re A-ma-ren e-rr-i-ak zu-re A-ma-ren

zu-re a-ma-ren zu-re a-ma-ren e-rr-i-ak


A-gurr a-gurr a-gurr a-gurr a-gurra-gurr, a-

-gurr. A-gur mai-teo-nek magi za-i-tza-la gu-ni-ri-x-


-te-ko-gra-zi-ak gu-re a-mi-mak be-ar-di-tuz-



ten me-se-de guz-ti guz-ti-ak A-gurra-gurr



a-gurra-gurr zu-re-a-ma-re-ne-rr-ak -gurr



a-gurra-gurr a-gurr A-gurr, a-gurr, a-gurr

MADARIAGA'KO MISIOAK

Estradak Madariaga'n egin zuan denbora-aldi bat ezkondu ondoren.

Berak sakristau ta maixu egiten zuan; andrea, berriz, josten da abar jarduten zan. Abade-etxean bizi ziran.

Abadea astean bein etortzen zan meza ematera. Estradak eliza ta aldarea pres-tatu, meza lagundu ta abar egiten zuan.

An bizi zala, Misioak izan ziran, ta bertsoak jarri zituan. Bere seme Patxik orain jaso dituanak, onako auek dira:

- 1/ Madariaga deitutzen zaion
San Isidroko eleizan,
kristau askoren probetxurako
misiuak dira izan;
orretarako San Franziskoren
seme on bat etorri zan
Jaun Zerukoak bialdutako
mandatari baten gisan,
gure animak diabruaren
mendetik atera ditzan.

2/ Don Antonio Unanue ori
apaiz on eta listue
ballera ortako animen artzai
leiala eta justue;
billatu digu izugarritzko
predikadore prestue,
bere itzekin jente guztie
gelditzen da ain poztue,
iñork ez dauka deskontenturik,
egin du danan gustue.

3/ Madariaga'ra bere sarrera
Martxo-illaren amaikan,
errezibitu zuen jentiek
bidera aterarikan;
allegatu zan egunetikan
eraso zion platikan;
guretzat beste sermolari bat
ori baño oberikan
akaso izan liteke bañan
ez det pentsatzen danikan.

4/ Ondo pentsatzen baldin badegu
da gauza arrigarria
aita on orrek eduki duen
itzegiteko etorria;
jendia beti aditutzeko
pozak zeguen jarria;
lastimaz laister aldegin digu
—ori da penagarria—
agorterikan izan eztuen
ibai edo iturria.

- 5/ Ballera eta abade jauna
lagun egiñaz alkarri,
obra asi ta bukatu arte
ez dira deskantsuz jarri;
kanpaia ere mudatu dute
santu berriak ekarri,
San Isidroko ermitak orain
parrokia bat diruri. (1)
- 6/ Orren buelta nola biar dan
mixiolariak esan du,
eta ez gera aditutzeko
leku txarrian egondu;
gañera berriz zenbait personak
limosna gogoz eman du,
batzuek gutxi ta bestiak asko,
onela gera konpondu;
geiago bota nai duanentzat
oraindik ez da berandu.
- 7/ Mixiolariak otsegin digu
jolas txarrak lagatzeko,
aurrerakuan nola gabiltzan
erreparuan jartzeko;
bi sari-toki jarri zizkigun
Jaungoikuak guretzako:
gaiztoarentzat inpernua ta
zerua onarentzako;
orain daukagu konbenientzia
zer nai dan aukeratzeko.

(1) Esan bearrik ez dago bertso ontan bi lerro falta dirala.

8/ Akabatu da obria eta
pasa dira mixiuak,
goguan izan relijioso
umill orren leziuak,
aurrera kontuz kunpli ditzagun
gure obligaziuak,
gorrotatuaz mundu ontako
gusto eta biziak;
Jaun Zerukoak emango digu
gero absoluziuak.

Bukaerako bertso au, berriz, Azkoitia'-
ko Larrume-aundi'ko Martin Larrañaga
zanari jaso genion:

9/ Misiolari prestu onek du
Frai Jose bere graziya,
Azkoiti'ko erri noble onetan
bertan jaio ta aziya,
San Franziskoren Ordenakua,
bertute ederrez jantziya,
Jesukristoren legeko gauzak
guziz ondo ikasiya;
danon partetik desio diyot
urte askoko biziya.

«ITALIA'TIK GATUZ...»

Iñauteri-egun batez bertso auek kantari atera omen zan Azkoitia'n lagun-talde bat. Bertso-jartzallea Jose Mari Estrada zan. Bertso geiago ere bazan, bañan Estradaren seme Patxi auetaz bakarrik oroitu da.

Doñua: Estradaren seme Patxik eta Demetrio Alberdi'k kantatua; Manuel Yaben eta Ambrosio Zatarain'ek magnetofonotik entzun eta paperean ezarria.

The musical score is presented on five staves. The first staff begins with a treble clef, a key signature of one flat (B-flat), and a 3/4 time signature. The melody is primarily composed of eighth and sixteenth notes, often beamed together. The accompaniment is provided by the lower notes of the staff, including chords and single notes. The second and third staves continue the piece, with the melody moving across the staves. The fourth and fifth staves contain a repeat section with two endings, labeled '1.' and '2.', indicating different ways to conclude the phrase.

- 1/ Italia'tik gatoz
guztizko kuadrilla,
ezer jango badegu
irabazi billa;
edozer lanetan da
jende au abilla,
iñork ezer badauka
etorri dedilla.

- 2/ Iñork baldin badauka
ezer konpontzeko,
kerten edo ipurdi
berririk jartzeko,
deadar egiten zaio
azkar ekartzeko,
datorren bezelaxe
bueltatuko zako.

- 3/ Bagera errementari,
pertz-konpontzalleak,
eta txokolatera-
-arabaitzalleak,
pattar-zurrupatzalle,
pipa-artzalleak,
ardo-erale eta
arpa-jotzalleak.

EUSKALERRIARI

Bertso auek ere Estradaren seme Patxik emanak ditugu. Berak Azkoiti'ko Pako Balda zanaren eskutik jaso zituan.

Eztakigu inprentatu ziran ala ez; Pako Balda'k eskuz idatzitako orri batzuetan zituan.

Pako Balda au, izen-deituraz Franzisko Cuende zeritzana, dultzañeroa zan. Berak eta bere anai batek dultzaña jo, ta Estrada bertsolariak atabala. Toki askotara iritxi izan oi ziran orrela.

Orrekin esana dago alkarrekin oso lagunak ziralaa. Ala, bertsoak ori esaten ez badute ere, ontzat ar genezake noski Balda'ren testiguanza, Estradarenak dirala alegia.

Pako Balda au, Balda etxean bizi zan, San Inazioren amaren etxean. Ortik zertorkion izengoitia. Etxe ori gain batean dago, Azkoiti guzia bere oñetan ikusten duala.

Pako Balda ori, zardadez etxean erretiratua zegoalarik ere, jai aundietan balkoira irten ta dultzaña-saio polit bat egiten zuan goizean, egunaren señalagarri. Erri guzitik entzuten zioten. Urte gutxi dira il zala.

- 1/ Biotza miñez erdibiturik,
malkoz beterik begiak,
negar samiñak egiten ditu
gure Ama Euskeriak;
lutoz jantzirik agiri dira
mendi, zelai ta erriak,
beragatikan jarri nai ditut
euskeraz bertso berriak.

- 2/ Orra zerk deukan Ama Euskera
miñez erdibiturikan:
zergatik bere oitura ederrak
dauden lurperaturikan;
alaxen ere ez degu askok
artzen atsekaberikan,
esan ere eziñ egiñ lezake
euskaldunak geranikan.

- 3/ Lenago emen genduzkan lege
eta oitura garbiak,
orain ez dira agiri baña
txit ziran maitagarriak;
gaur aiña karga bere gañian
etzuan Euskalerrriak;
nun dira orduko pakea eta
egun atsegiñgarriak?

4/ Garai bateko guraso zarrak
gaur mundurako balira,
galde egingo lukete lotsaz
jarririk guri begira:
«Guk aiñ ederrak utzi giñuzen
oitura aiek nun dira?
Emen ez dago tristura baizik,
guazen len geunden tokira!»

5/ Ainbeste maite giñuzen gauzak
oinperatzea lurpera
ez al da negargarrizko edo
izugarrizko galera?
Gañera gure izkuntz ederra
pixkaka galtzen ai gera,
eziñ lezake au ontzat artu
euskaldun onak bagera.

6/ Ez da munduan euskera baño
izkuntza ederragorik,
eziñ lezake izan ere ta
ez det pentsatutzen danik;
bear bezela jakiñ ez arren
biotzez maitatzen det nik,
beti esanaz: «Gora euskera,
ez da zu bezelakorik!»

7/ Ama Euskerak seme leialtzat
ezagutuko bagaitu,
bere oitura garbi oieri
biar diegu jarraitu;
orretarako erakusliak
Euskalerrriak baditu,
eta oiekin alkartu gabe
ez dedilla iñor gelditu.

8/ Diputazio goituak ere
pozik nai digu lagundu,
zer izakera tristian gauden
iñoiz aditzen eman du,
esanaz gure oker guziak
lezazkiala zuzendu,
biar bezela euskaldun danok
alkar artuko bagendu.

9/ Jaun prestu oien laguntzarekiñ
artutzen degula parte,
lau probintziak bat egitia
ez degu izango kalte;
anaiak geran bezela alkar
izan biar degu maite
eta euskera bizi dedilla
mundua mundu dan arte.

10/ Oraindik ere euskal erriak,
Jaungoikuari eskerrak,
badaduzkagu gizon jakintsu
leialak eta azkarrak;
poztu Bizkaia Gipuzkua'kin,
Araba eta Naparra'k,
eta gogotik deadar egin:
«Beto z lengo lege zarrak!»

11/ Zuri begira jartzen gerade
arbola Gernika'koa,
euskal erriak defenditzeko
ortxen ipiñitakoa;
zu zera guri urte askuan
itzala egiñdakoa
aurrera ere zaude txutikan,
aritz zorionekoa.

12/ Itzal ederra dezun aritza,
gu gera zure lagunak,
orain da beti biotz guztitik
maitatu nai zaitugunak;
gora zuaitz bedeinkatua,
gora diputadu jaunak,
baita ere gora fueruak eta
bizi bitez euskaldunak!

«MORUAK EIN DITUZTEN...»


Jose Mari Estrada'ren anai bat ere bertsolaria omen zan, edo bertsotan pixka bat jarduten zana beintzat. Bañan arenik bertso au besterik ez degu jaso al izan. Soldauzka Afrika'n egin omen zuan, eta ordukoa da bertsoa:

Moruek ein dituzten
ganauen feriyek,
ez dizkigute asko
bete begiyek;
plazara ozta-ozta
daude etorriyek,
oiek pasa dituzte
gose-egarriyek;
Afrika'ko beyek
tente adar biyek,
zintzilik jarriyek
beren belarriyek...
Emen deskansuz daude
proba-arriyek!

ORAINDAÑOKO LIBURUAK

1. R. Artola: Sagardoaren Graziya (*Aitua*).
2. M. Soroa: Gabon, au ostatubal, Anton Kaiku. (*Aitua*).
3. F. Apalategi: Euskal mutillak armetan, I.
4. Pepe Artola: Ustez laguna detan.
5. P. M. Urruzuno: Euskalerritik zerura. (*Aitua*).
6. T. Alzaga: Ramuntxo. (*Aitua*).
7. R. Azkarate: Galtzaundi. (*Aitua*).
8. A. Apaolaza: Patxiko Txerren.
9. B. Iraola: Oroitzak.
10. Errege eguneko bertso sayoa (1962). (*Aitua*).
11. P. Larzabal: Bordaxuri. (*Aitua*).
12. Bilintx: Bertso ta lan guziak. (*Aitua*).
13. M. Izeta: Dirua galgarri. (*Aitua*).
14. P. Larzabal: Iru ziren.
15. Ezkontza galdutako bertsoak, I.
16. A. M.^a Zabala: Gabon gau bat.
17. A. M.^a Labayen: Malentxo alargun!
- 18-19. A. Zavala: Txirrita. (*Aitua*).
20. F. Goñi: Lurdesko gertaerak.
21. P. Larzabal: Herriko bozak.
22. Bertsolarien txapelketa (30-XII-1962).
23. Aizkolariak.
24. F. Imaz: Bertso guziak.
25. A. P. Iturriaga: Jolasak.
26. A. M.^a Zabala, A. Larraitz, Mir: Periyaren zalapartak.
27. Azpeitiko Premiyoaren bertsoak.
28. B. A. Mogel: Ipui onak.
29. T. Alzaga: Burruntziya.
30. G. Anduaga: Egunsentiko txoria.
31. M. Soroa: Baratzen.
32. M. Elicegui, A. Zavala: Pello Errotaren bizitza.
33. M. Elicegui, A. Zavala: Pello Errotak jarritako bertsoak.
34. P. Larzabal: Senpere-n gertatua.
- 35-36. J. V. de Echagaray: Festara.
37. A. Cardaberaz: Euskeraren berri onak.
38. S. Salaverria: Neronek tirako nizkin.

39. *Bertsolariak*: Amar urteko bertso-paperak.
- 40-41. *J. R. Zubillaga*: Lardasketa.
42. *Uztapide*: Noizbait.
43. *Bertsolari-txapelketa* (1-I-1965).
44. *P. Larzabal*: Hilla esposatu.
- 45-46. *J. M. Satrústegui*: Bordel bertsularia.
47. *P. M. Urruzuno*: Iru ziri. (*Aitua*).
48. *P. Barrutia, Sor Luisa, X. Munibe*: Teatro zaarra.
- 49-50. *A. Zavala*: Pello Errotaren itzala.
51. *P. M. Urruzuno*: Ur-zale baten ipuiak.
- 52-53. *G. Anduaga*: Bertso-bilduma.
54. *A. Zavala*: Fernando Amezketarra bertsularia.
55. *Basarri*: Laugarren txinparta.
56. *A. Zavala*: Udarregi bertsularia.
- 57-58. *C. Beobide*: Asis'ko Lorea.
59. *A. Zavala*: Axentxio Txanka bertsularia.
60. *A. Zavala*: Errikotxia, Itxaspe ta beste zenbait bertsolari.
61. *A. Zavala*: Gaztelu bertsularia.
62. *A. Zavala*: Zarautz'ko Zaldubi bertsularia.
- 63-64. *A. Zavala*: Juan eta Pello Zabaleta bertsolariak.
65. *J. M. Satrústegui*: Luzaide'ko kantiak.
66. *A. Zavala*: Iru bertsolari.
67. *Bertsolari-txapelketa* (11-VI-1967).
- 68-69-70. *A. Zavala*: Alzo'ko Imaz bertsularia.
- 71-72. *A. Iturriaga*: Ipuiak.
73. *A. Zavala*: Iru anai bertsolari.
- 74-75. *A. Zavala*: Errenteria'ko bertsolari zaarrak.
76. *A. Zavala*: Alza'ko bertsolari zaarrak.
- 77-78. *A. Zavala*: Paulo Yanzi ta bere lagunen bertsoak.
- 79-80-81. *A. Zavala*: Lexo bertsularia.
82. *A. Zavala*: Juan Maria Zubizarreta bertsularia.
83. *A. Zavala*: Motza, Zulaika ta Ugalde bertsolariak.
84. *M. Matxain*: Uste gabeen.
85. *Xalbador*: Ezin bertzean.
- 86-87. *A. Zavala*: F. Iturzaeta bertsularia.
- 88-89-90. *A. Zavala*: Xenpelar bertsularia.
91. *A. Zavala*: Txapel bertsularia.
92. *I. Alkain* — *A. Zavala*: Alkain aita-sumeak.
93. *A. Zavala, S. I.*: Zubeltzu ta Saikola bertsolariak.
93. *A. Zavala*: Zubeltzu ta Saikola bertsolariak.
94. *A. Zavala*: Atano ta Estrada bertsolariak.



AUSPOA
LIBURUTEGIA